

Gehigarria



Durangaldea prest Euskaraldiko ariketa kolektiboan parte hartzeko

Durangaldea • Ahobizi edo belarriprest rola erabilita, azaroaren 18tik abenduaren 2ra bitartean hizkuntza ohiturak aldatzea da helburua. • **14-22**



Ekoizleak soldata eta lan baldintza duin bila

Bi lur elkartek eta Euskal Herriko Unibertsitateak ortugintza ekologikoaren ekoizpen kostuak eta lanorduk aztertu dituzte Duina izeneko ikerketan. Azterlanean Durangaldeko hiru proiektuk parte hartu dute: lurretako Patxikobasok, Izurtzako Eskubaratzek eta Zornotzako Jon Bastante ekoizleak. Ikerketaren ondorioetariko bat hau da: ekoizleak, batez beste eta orokorrean, ez dira hilean 1.200 euro poltsikoratzera heltzen. • **2-3**

Gau Krosa Durangoko Alde Zaharretik, bihar

Lasterketa • Aurtengo nobedade nagusia da egunean bertan egin behar dela izen-ematea. Umeen lasterketak 17:30ean hasiko dira. Nagusien proba, 18:00etan. • **29**

**ARGENTINAKO ENPANADAREN BENETAKO
ZAPOREA HELDU DA DURANGORA!**



Eskaneatu QRa
eta ezagutu guri
buruz gehiago!

BISITA GAITZAZU:  FRAY JUAN DE ZUMARRAGA 3 |  623 168 280





“Gure lanak onurak eskaintzen dizkie gizarteari eta naturari, baina trukean jasotzen duguna ez da behar den bestekoa”

Durangaldeko ekoizleek ortugintzaren bideragarritasun ekonomikoa aztertzeko proiektu batean parte hartu dute

ORTUGINTZA • EKAITZ HERRERA

Biolur elkarteak ikerketa bat egin du ortugintza ekologikoaren sektorean lan egiten duten nekazarien ekoizpen kostuak, lanordu kopuruak eta egonkortasun ekonomikoa ezagutzeko. Ikerketa 2021ean egin zuten eta nekazaritza ekologikoa lantzen duten Bizkaiko eta Gipuzkoako 11 ekoizleek parte hartu zuten bertan. Tartean, Durangaldeko hiru eragilek: Eskubaratz proiektuko kideek (Izurtza), Patxikobasok (Iurreta) eta Ibarra baserriko Jon Bastante ekoizleak (Zornotza). Orain, Biolurrek eta azterketan parte hartu duten kideek Duina izeneko proiektuan batu dituzte azterketako

ondorioak. Lorturiko informazioa-gaz, ekoizleen duintasun ekonomiko eta soziala garatzeko abiapuntuak sortu gura dituzte. Eskubaratz proiektuko Nere Aspiazu Baskaran ekoizleak eta Patxikobasoko Urdaspal Alberdi Uriak erantzun diete galderei.

Zeintzuk dira ikerketan batu dituzten datuak?

Urdaspal Alberdi Uriak: Duina 11 ortugintza proiektu egindako ariketa kolektiboa izan da. Ariketa horretan gure lanordu guztiak zenbatzen ahalegindu gara, lanordu horiek guztiak zein zereginetara bideratzen ditugun zehazten eta

hortik eratorritako emaitzak islatzen. 12 ortuari zehaztu eta horien ekoizpena zelakoa izan den jaso dugu. Hau da, zenbat letxuga, zenbat piper eta zenbat tomate batu dugun adibidez, eta horiekin zer emaitza ekonomiko lortu dugun ikertu dugu.

Nere Aspiazu Baskaran: Irizpide modura, Eskubide Sozialen Kartak markaturikoa kontuan hartu dugu. Hau da, gutxienez 1.200 euroko 14 ordainsari jasotzea urtebetean. Soldata horietara heltzeko, barazkiek izan behar litzatekeen prezioak zeintzuk izan beharko liratekeen kalkulatu dugu.

“Lanarekiko ilusioak konpentsatzen du prekaritatea, baina zenbat denboran eutsi diezaiokezu horri?”

Eta zein da ondorioa? Ailegatzaren zere Eskubide Sozialen Kartak markaturiko gutxienera?

U.A.U.: Ez gara 1.200 euroko soldata horietara ailegatzaren. Ikerketan parte hartu dugun 11 ekoizleen arteko batez besteko soldata

gutxienera horren azpitik dago. Lanorduei dagokienez, gure lanorduek Eusko Jaurlaritzaren nekazaritza aktibitateko dekretuak markaturikoak baino gehiago dira. Beraz, ez gara gutxienera soldatara ailegatzaren eta markaturikoak baino ordu gehiago lan egiten dugu.

Errealitate horrek ekoizleak, nekazariak, erretzea ote dakar?

N.A.B.: Egindako ikerketan hori komentatu izan dugu. Jendea oso pozik hasten da ortugintza ekologikoan, gure lana maite dugulako, hain zuzen ere. Baina prekaritateari aldi batez eutsi diezaiokezu. Esaterako, 24 urte dituzunean eta lanean 4 urte daramatzazunean. Edo 30 urte dituzunean eta lanean urte bi daramatzazunean. Baina 10 urteko prekaritateari ezin diozu eutsi. Ni honetan sartu nintzenez gurasoenean bizi nintzen, lan bi nituen, aurrera egiten duzu. Zelanbait esateko, hasieran duzun ilusio horrek konpentsatzen du prekaritatea. Baina zenbat denboran eutsi diezaiokezu horri? Hamar urte hauetan jende asko ikusi dugu nekazaritza uzten.

Ikerketak jaso duen beste ondorio bat diru laguntzena da. Zuen diru sarreraren %5,4 laguntzak dira.

N.A.B.: Diru laguntza kopuru ho-

riek ikusita eman dezake gure lanak autonomia bat duela, hau da, ez duela diru laguntzekiko dependentziarik behar. Baina kontua da prekarioak garela. Gure ustez, diru laguntzak gizarteari eskaintzen dizkiogun onuren markoan ulertu beharko lirateke. Barazki ekologikoak eskaintzeaz gainera, ingurunea zaintzen dugu, ahalik eta tratamendurik

“Ortuariak eskoletako jantokietan edo egoitzetan zabaltzerik bagenu, egoera hobetu egingo litzateke”

gutxien erabilia. Diru publikoak ekonomikoki gure lanaren garrantzia nabarmendu behar du.

U.A.U.: Bai, gure lan egiteko moduak onurak eskaintzen dizkio naturari, ingurumenari, biodibertsitateari. Baina trukean jasotzen duguna ez da behar den bestekoa. Ez dakit hori diru laguntzek konpentsatu beharko luketen edo gure salneurrien igoera batek konpentsatu beharko lukeen. Puntu hori ez dut argi. Baina argi dago gure lanaren truke ez dugula jaso beharreko guztia jasotzen.

N.A.B.: Gero, onura naturaletatik aparte, onura sozialak daude. Gure salmenta kanalek komertzio txikia, azoka eta herriak bizirik mantentzea ahalbidetzen dute.

“Gure salmenta kanalek komertzio txikia, azoka eta herriak bizirik mantentzea ahalbidetzen dute”

Salmenta kanal bakoitzak etekin ekonomiko desberdinak eskaintzen dizkizute, ikerketaren arabera.

U.A.U.: Atera den ondorioetarikoa bat da merkatu plazetan ateratzen den etekina ez dela efizienteena. Otzarek eta kontsumo taldeek etekin handiagoa eskaintzen dute orokorrean, nahiz eta nire kasuan ez den horrela. Bestalde, interesgarriak dira denda txikiek, jatetxeek, eskaintzen dituzten etekin efizienteak. Hor egon daiteke bide bat. Gure produktuak eskoletako jantokietara edo egoitzetara zabaltzeko aukerarik izango bagenu, egoera asko hobetuko litzateke. Hori uste dut. Gainera, ekoizle berriak sektorerara hurbiltzeko motibazio bat gehiago litzateke.

“Ekoizleok, batez beste, ez gara 1.200 euroko soldatarara heltzen”

Duina proiektuan berduren prezioa igotzeko ariketa egin dute, soldata duina eskuratzeko simulazio modura. Dena dela, prezioa igotzearen kontua ez dute argi

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangaldeko ekoizleek lehendik ere antzematen zutena egiaztatu ahal izan dute Duina proiektuagaz. Orokorrean, eta batez beste, ez dira 1.200 euroko soldata poltsikoratzera heltzen. Ikerketak Eskubide Sozialen Kartak markaturiko kopuruak hartzen ditu soldata duin baterako minimo modura: 1.200 euroko hamalau paga, urtean 16.800 euro gutxienez. Baina proiektuan inplikaturiko 11 ekoizleen batez bestekoa beherago dago. Urtean 14.990 euro poltsikoratzen dute. Eta ez hori bakarrik, markaturikoa baino %10 lanordu gehiago sartzen dute. Horren aurrean, zer egin? Produktuen prezioa igo? Ekoizleek ez dute argi. "Azterketan oso prezio desorbitatuek irten dute, eta argi dugu ez dugula aberatsentzako produkturik ekoiztu gura. Herri-tarrak elikatze gaude hemen. Baina nork ordaindu behar du kostuen gainkarga hori? Momentu honetan guk jasaten dugu, baina ez litzateke horrela izan behar. Azterketak gogoetarako puntu zabal bat uzten du hor", adierazi du Nere Aspiatzuk.

	Ekoizpen kostua (€/kg edo unitatea)	Prezio min. (€)	Prezio max. (€)
Azenarioa	4,8	3	4,5
Brokolia	5,44	3,5	4
Ilarra	11,43	6	12
Kalabaza	2,33	2	4
Leka	12,65	4	7
Letxuga	1,14	0,8	1,2
Piperra (Gernika)	13,17	6	12
Piperra (Italiarra)	3,47	3	5,5
Porrua	5,38	3,6	4,5
Tipula	4,87	2	3,5
Tomatea	4,07	3	5,5
Zerba	2,32	2	3,5

Berduren koizpen kostuak, eta ikerketako ekoizleen prezio maximoak eta minimoak.

Batetik, "gizarte erantzukizuna" ere badagoela azpimarratu dute. Ikerketan parte hartu duen eskualdeko beste ekoizle bat Jon Bastante zornotzarra da, Ibarra baserriko laboraria. Honako gogoeta hau egin du: "Koronabirusa goia jota zegoenean, oso inportanteak ginen antza. Ukrainako gerra hasi zenean ere, oso inportanteak ei ginen. Badirudi gizarte eta kontsu-

mitzaileak momentu puntualetan akordatzen direla gugaz. Baina gero ez dago desirarik edo gaitasunik elikadura lokala zaintzeaz arduratzen direnen figurak, ekoizle txikiak eta baserriarrak mantentzeko". Urdaspal Alberdik ere ildo horretatik partekatu du hausnarke-ta: "Guk gizarteari eskaintzen diogun dena kontuan hartuta, gure produktuekiko eskariak hor egon

behar duela uste dugu. Durangoko merkatuan ikusten dut zapatuetan. Sei lagun egoten gara ortuari ekologikoak saltzen, eta kosta egiten zaigu. Gizarteak, orokorrean, erosketa eta kontsumo ohiturak aldatu beharko lituzke. Ondora begiratu behar du, inguruan zer ekoizten den eta zelan ekoizten den erreparatuta", adierazi du Alberdik. "Hori bai, bezero fidelak

ditugu, astero-astero datozenak; zoragarriak dira", gaineratu du.

Prezioaz gainera, baina, lanordu kopurua dago. Duina ikerketak ondorioztatu duenez, era ekologikoan lan egiten duten ekoizleek Eusko Jaurlaritzako nekazaritza dekretuak markaturikoa baino %10 ordu gehiago sartzen dute urtean, batez beste. Kasu batzuetan, ordu kopuruak %53 egiten du gora.

Laborarien soldata urteko

Eskubide Sozialen Kartaren soldata duina
16.800€

Laborarien soldata erreala
14.990€

Orduko koste duina **14,34€**

Laborarien soldata, urteko.

BETI GERTU!

HEMENDIK

ELORRIORA

Begiratu aukerak gure webgunean:
www.zarateyelexpe.com
Tel.: 946 816 673
Bixente Kapanaga 19, beh. 48215, lurreta

Teilatua, Durangoko institutuko ikasgela berria

Txapel batez buru bi estali dituzte Durangoko institutuan. Ortuariak eta loreak hazten dituzte, horiekin matematika, teknologia zein kimika lantzeko



Jone Zuazo Olariaga fisika-kimikako irakaslea eta Gloria Agirrebeitia Orue teknologia irakaslea hiri-ortua dinamizatzeaz arduratzen dira.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Matematika, kimika, teknologia edo lorezaintza klaseak, non eta sabaian. Zergaitik ez? Durangoko institutuak ikasgela bihurtu du bere instalazioetako teilatua txatal bat. Loreontziak, landareak eta eguzki plakak dituzte han-he-

menka. Eta bai, herri hizkerak dioenaren kontra, ezinezkoa dela dirudien hori bete dute: txapel bakarragaz buru bi estaltzea. Izan ere, berdurak eta loreak lantzen dituzte, horien bitartez matematika, kimika zein teknologia lantzeko.

Dena 2020-2021 ikasturtean hasi zen, STEAM izeneko proiektuaren barruan. Durangoko institutua programa horren zati da 2017tik, eta azken edizioan hiri-ortu bat sortzeko erronka hartu du bere gain. DBHko ikasleak daude horren atzean. Lehe-

nengo eta bigarren mailakoak, baina proiektua apurka-apurka goragoko mailetara zabaltzea da ikastetxeko komunitatearen erronka. "Proiektu bidezko ikasketa sistema da, ikasleek sortzen dute dena. Ortu alorrak eurek diseinatu dituzte, materiala eta hesolen aurrekontua eurek kalkulatu dute. Zenbat ongarri behar den kalkulatu dute, bolumenak, PH indizea neurtu,..." adierazi du Gloria Agirrebeitia Orue teknologia irakasle eta STEAM proiektuko arduradunak. Proiektua Zereginen Ikasketa Gelako (ZIG) kideekin batera garatzen dabilta. "Bertan artoz bat eta agronomo bat ditugunez, proiektuak DBHko eta ZIG gelako ikasleen arteko integrazioa lantzeko ere balio digu", gaineratu du Agirrebeitiak.

Ikastetxea "berdeagotzen"

Une honetan neguko ortuariak dituzte teilatuko ortu-terrazetan. Brokolia, aza, erremolatxa, zerba, rukula, berakatza, borraja, letuxa eta porruak. "Baina loreak ere baditugu. Hori inportantea da, adibidez, polinizazioa zer den azaldu dezakegulako, gaixotasunak zelan sortzen diren aztertu dezakegulako", azaldu du Jone Zuazo Olariagak, fisika-kimikako irakasle eta hiri-baratzeko ar-

duradunak. "Ikasleek ateratako landareak ere baditugu, kosmosak eta betibizi loreak, adibidez. Fruitu txikiak ere bai, hala nola arakatzak eta andere-mahatsa. Horrez gainera, botatzear dauden elementuak hartu eta bigarren erabilpen bat ematen diegu", esan du Zuazok. Azken finean, ikastetxeko inguruak, izan teilatua edo patioa, "berdeagotzeko" asmo sendoa dute irakasle biek.

Ikuspegi ekologiko hori ikastetxeko beste arlo batzuetara ere zabaltzen da. Adibidez, ikastetxeko instalazioak energia berriztagarritz hornitzeko proiektuetara. Teilatuko ortuarietatik metro gutxira hainbat eguzki plaka dago. Horiek ere baliatzen dituzte ikasketetarako. Halantxik azaldu dute Maialenek, Libek eta Luciak, Batxilergoko bigarren mailako ikasleek: "Teknologiako klasean eguzki plakei buruzko proiektua garatu genuen iaz. Klasean erabiltzen den argindarraren zati bat plaka hauetatik dator", azaldu dute.

Geroago eta gehiago dira eskualdeko eraikin publikoetan instalatzen diren eguzki plakak. Ez hainbeste sabaian hiri-ortuak dituzten eraikinak. Institutuan biak konbinatzen dituzte. Etorrizuneko joera berri baten aurrean ote gaude?

Herriaren Eskubidea Podemosetik aldendu eta herri hautagaitza propio bat sortzea aztertzen dabil

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Herriaren Eskubidea taldea Elkarrekin Podemosen egituratik kanpoko herri kandidatek bat sortzea aztertzen dabil. Halantxik jakinarazi du Neskutz Rodriguezek: "Eztabaidatzen ga-

biltzan zerbait da. Oraindino ez dugu erabaki irmorik hartu, baina kontua hortik doa", azaldu du zinegotzi durangarrak. Behin bertiko erabakia urtarrilerako hartuko dutela iragarri dute. "2015ean udalean sartu ginenean, ikusi

genuen Durangon badagoela horretarako beharrezina. Azken finean, ez zaigu batere gustatzen alderdi politikoek eskaintzen duten bertikaltasuna. Elkarrekin, auzokideekin berba eginda, ikusi dugu Durangon badagoela plataforma herritar bat bultzatzeko esparrua. Durangok dituen berezitasunak Durangon bertan, durangarrekin erabakitzeko aukera dagoela ikusten dugu", azaldu du Rodriguezek.



Herriaren Eskubideak 2019ko udal hauteskundeetan egindako ekitaldi politiko bat.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2022ko azaroaren 11
21. urtea - 913. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Durangoko jaietan programaturiko euskarazko ekintzak %35 izatetik %53 izatera igaro dira

Berbarok egin du ikerketa. 2019ko eta 2022ko edizioak alderatuta "oso jauzi positiboa" izan dela dio elkarteak

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Berbarok euskararen erabilera neurtu zuen Durangoko jaietan, Jai Batzordeak, Txosna Batzordeak eta barrakek programaturiko ekintzak aztertuta. Elkartearen iritziz, Jai Batzordeak antolatutako ekintzek "oso jauzi positiboa" izan dute 2022an, 2019koagaz alderatuta. "Euskarazko ekintzak erdaraz

edo ele bitan antolatutakoak baino gehiago izan dira. 2019ko datu txarrak aldatzea lortu da eta zorian-tzekoa da hori", iritzi dio elkarteak. Jai Batzordeak euskara hutsean antolatutako ekintzak %25 izan ziren 2019an, eta erdia baino gehiago izan dira aurten, %52. Txosna Batzordeak antolatutako ekintzei buruz ere antzerako balorazioa

egin dute: "Euskarazko programazioa apur bat igo da, baina benetan esanguratsua dena da urterik urte egitarau ia guztiz euskalduna antolatzen duela, eta hori ere zoriontzekoa da, erreferentzia delako Txosna Batzordea alor horretan". Euskara hutsezko ekintzak %71tik %78ra igo dira aurten.

Dena dela, Berbarok umeentzako ekintzetan igarri du gorakadirik nabarmenena. 2019an %29 izan ziren umeei zuzendutako euskarazko ekintzak. Aurten %55 izan dira. Berbarok bilakaera "pozgarria" dela dio eta ildo horretan jarraitzea deitu du, "umeentzat programaturiko den-dena euskaraz izan dadin". Azterketako punturik beltzena barrakek utzi dute. Abesti batzuk eta prezioetako kartelak euskaraz ipini arren, "ez dira nahikoa izan erdaraz egindako ekintza lez ez sailkatzeko".



Pantxikeren kalejirak Goienkalea zeharkatu zuen urriaren 11n.

Ezkontza kopuruen beherakada Garain: urtean 300 izatetik 25 izatera pasatu dira hiru hamarkadatan

80ko hamarkada amaieran, urtean 300 ezkontza izatera ailegatu ziren, elizakoak zein zibilak batuta. "Sasoi hartako joera hori goitik behera" aldatu dela dio Lazaro Milikuak

GARAI • EKAITZ HERRERA

Hartu-emanak bizitzeko eta kudeatzeko erak askotarikoak dira eta bikotekideen arteko ezkontza kopuruetan ere islatzen dira gizarte barruko joera aldaketak. Garain, behintzat, bai, igarri dituzte. Lehen, makina bat ziren herriko inguru ederrak ezkontza leku lez baliatzen zituzten eskualdeko zein eskualdetik kanpoko bikoteak. Gaur egun, baina, ezer ere ez da lehengoa. Lazaro Milikua garaitarrak ondo daki hori. "Udaletxean idazkari egon nintzenez, 1988-1989-1990 buelta horretan, bikote mordoak ezkontzen zen hemen. Go-

goan dut urtebetean 300 ezkontza izatera ailegatu ginela, elizakoak zein epaitegikoak batuta. Bariku, zapatu zein domeka, egunean hi-

"Bariku, zapatu zein domeka, egunean hiruzpalau ezkontza izatera ailegatzeko ginen"

Aurten hiru ezkontza izan dituzte San Migel elizan, eta hogeitik behera epaitegian

ruzpalau izatera ailegatzeko ginen", gogoratu du Milikuak. Garai hartako joera hori, baina, goitik behera aldatu da. "Gaur egun askoz ere jende gutxiago ezkontzen da. Beheranzko joera hori urteetako da eta pandemiak areagotu egin du beherakada hori. Aurten hiru ezkontza baino ez ditugu izan Garaiko elizan, eta hogeitik behera epaitegian", zehaztu du Milikuak. "Aretxabaletako bikote bat ezkondu da hemen, irlandar bat ere bai", gaineratu du. Datorren urteari begira ezkontza bakarra dute aurreikusita. Apirilean bikote bat ezkonduko da udalerrian.

Ika-mika Durangon datorren urteko aurrekontuak adostearren harira

Gobernu taldeak "eskua luzatu" dio oposizioari kontuak adosteko. EAJk "itxurakeria" egitea leporatu dio

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko gobernu taldeak "eskua luzatu" die oposizioari alderdiei, 2023ko aurrekontuetan "zenbait akordio lortzeko". Gobernu taldeak ohar bidez adierazi duenez, "inoiz baino beharrezkoagoa" da "batasuna". "Durangarrek akordioak eskatzen dizkigute, ez eztabaida antzua. Horregaitik, oposizioari gainerako alderdiei akordio batera heltzea proposatzen diegu, etorkizuneko Durango ulertzeko modua markatuko duten hainbat proiektu garatzeko", adierazi dute Ima Garrastatxu alkateak eta Julián Ríos alkateordeak. Hori dela eta, gogora ekarri dituzte oposizioagaz lortu izan dituzten akordioak. 2021ean EAJgaz adostu zituzten aurrekontuak; aurten, PSE-EEgaz. Abstenzio bidez biak.

Mezuak EAJren kritikak piztu ditu. Jeltzaleen iritziz, gobernu taldeak egindako gonbitea "itxurakeria" baino ez da. EAJren

berbetan, gobernu taldeak "errealitate oso urruti" dagoen aurrekontu proposamena aurkeztu die oposizioari alderdiei. Zirriborro horrek ez du "soldatak %3,5 igozte" eta "Udalkutxak onartutako

Gobernu taldearen iritziz, "inoiz baino beharrezkoagoa" da "batasuna"

diru-sarrerak" islatzen, jeltzaleen berbetan. "Oso gatxa da aldatu beharreko aurrekontu baten gainean proposamenak egitea. EAJk hainbat zuzenketa garrantzitsu egitea eskatu zuen urriaren 7an, baina oraingoz ez da moldaketarik egon. Horrek gobernu taldearen borondate falta adierazten du. Gainera, 2021eko aurrekontuen akordioak bete barik jarraitzen du", adierazi dute.



ANDRAMARI
ZORNOTZAKO IKASTOLA



ATEAK ZABALTZEKO EGUNA
(2021, 2022 eta 2023an jaiotakoentzat)



Bertaratzeko eman izena
Azken eguna azaroaren 17a



EGUNA: 2022/11/19
ORDUA: 11:00
LEKUA: Ikastolan

✉ zornotza@ikastola.eus
🌐 www.andramarizornotzakoiikastola.eus
☎ 946 732 950



Ernaik Gazte Topagunea egingo du Elorrion 2023ko udaberrian

Joan zen astean, Ernai gazte antolakundeak prentsaurrekoa egin zuen Gasteizen, eta iragarri zuten apirilaren 6tik 9ra Gazte Topagunea egingo dutela Elorrion



Ernaikoe emandako prentsaurrekoko argazkia.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Ernai gazte antolakundeak joan zen astean Gasteizen emandako prentsaurrekoan iragarri zuen 2023an Gazte Topagunea egingo duela Elorrion. Apirilaren 6tik 9ra bitartean egingo dute topagunea. Gazte antolakunde-

koek jakinarazi dutenez, 2023ko edizioak "Euskal Herriko gazte independentisten topaleku" izateko helburua du. "Gure proiektu politikoa amestu, hausnartu, marraztu eta eraikitzen pasatuko ditugu laun egun", azaldu zuten prentsaurrekoan.

Elorrion aurretik ere egin izan dute Gazte Topagunea. 2002. urtean hain zuzen ere. Urte hartako Gazte Topagunean 21.000 lagun elkartu ziren herrian eta San Agustingo landak kanpaleku erraldoi bihurtu zituzten.



Rokodromo berria eraikiko dute Elorrion.

Rokodromo berria eraikitzea proiekturik bozkatuena Elorrion

Aurrekontu parte hartzaileetako proiekturik bozkatuena da. 90 boto jaso ditu rokodromo berria egiteko proiektuak

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Aurrekontu parte hartzaileetan herritarrek horrela erabakita, Elorrioko Udalak rokodromo berri bat egingo du. 50.000 euro ipiniko dituzte rokodromo egiteko. Udaletik jakinarazi dutenez, proiektu hau izan da bozkatuena, 90 botogaz. Bigarren proiekturik bozkatuena Berrio eta Aldape

artean bide berdea egokitzeko ideia izan da, 84 botogaz. Eta hirugarren bozkatuena udalerriko eremu jakin batzuetan hiri-altzari berriak ipintzeko proiektua izan da, 54 botogaz.

Parte hartzeari dagokionez, 16 urtetik gorako 398 elorriarrek emandako botoak izan dira baliozkoak.

Mikel Garaizabal izango da Abadiñoko EAJren alkategaia

Egungo Abadiñoko alkatea izango da alderdi jeltzaleak udal hauteskundeeta aurkeztuko duen zerrendaburua

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Mikel Garaizabal Iturriagaetxebarria egungo alkatea izango da Abadiñoko EAJren alkategaia 2023ko udal hauteskundeetarako. "Erronka hau orain lau urteko erantzukizun, ilusio eta gogo beragaz eta esperientzia gehiagoz hartzen dut, eta entzuten eta ikasten jarraitzeko konpromisoa

ere hartzen dut", azaldu du Garaizabalek.

46 urteko abadiñarra 2019tik da Abadiñoko alkatea, baina ibilbide luzea darama politikagintzan. 23 urte hasi zen EAJn militatzen, eta lau urte geroago zinegotzi hautatu zuten; Abadiñoko Udaleko bigarren alkateorde izendatu zuten orduan.



Atxondoko jubilatuen etxea.

Jubilatuen etxeko tabernaren kudeaketa lehiaketa publikora

Interesdunek instalazioak bisitatzeko aukera izango dute proposamenak aurkeztu aurretik

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko Udalak lehiaketa publikora atera du Jubilatuen Etxearen tabernaren kudeaketa. Taberna berrituaren ustiapen-zerbitzua 2.399 eurokoa da, hau da, hilero 165,28 euro (gehi BEZa). Kontratuak urtebeteko epea izango du.

"Deialdia edozein pertsona edo enpresari dago zabalik, baina

Atxondoko Udaletik atxondar guztiei dei egin gura diegu; hain zuzen ere, tabernaren kudeaketa bere gain hartu gura duten Atxondoko bizilagunei", azaldu dute Atxondoko Udaleko arduradunek.

Horrez gainera, interesdunek instalazioak bisitatzeko aukera izango dute proposamenak aurkeztu aurretik

Arrazolako etxeko giltzen faltan, idazkariaren txostenaren zain

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Azken egun hauek ziurgabetasun egunak izaten ari dira Atxondoko Harrera Herriko kideentzat. Joan zen astean, Atxondoko Harrera taldekoen etorkizunaz erabakitzeko batzarra egin zuten udaletxean, eta hainbat konpromiso hartu zuten bertan. Harrera taldeko kideek jakinarazi zuten, udaletxe azpiko kanpalekua desmuntatzeko konpromisoa hartu zuten eurek. Eta udalak beste konpromiso bi. Bata azaroaren 3rako Arrazolako etxe bateko giltzak ematea. Eta bestea azaroaren 10erako Axpeko aterpetxearen etorkizuna zein izango den erabakiko duen idazkariaren txostena izatea. "Oraindino ez dugu giltzarik jaso", adierazi dute Harrerako kideek. Bestalde, edizio hau ixterako Harrerakoek oraindino ez dute idazkariaren txostenaren berrik.



Mikel Garaizabal Iturriagaetxebarria.



Okm: *batzen gaituen* *distantzia*

Egin zaitez anbotokide!

▶ anboto
kide

Radarra, zebrabidea eta bidegorria, Otxandioko Anteparaluzeta auzokoen segurtasuna hobetzeko hartuko diren neurriak

Auzoa erdibitzen duen BI-623 errepidean eta haren inguruan hainbat lan egingo dute; obrak datozen aste bien barruan hastekoak dira



Otxandioko Anteparaluzeta auzoa eta berau zeharkatzen duen BI-623 errepidea.

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Otxandioko Udalak hainbat lan egingo du Anteparaluzeta auzoa erditik ebakitzen duen BI-623 errepidean eta haren inguruan. Auzotarren segurtasuna hobetzea da helburua eta, hori lortzeko, neurri

batzuk hartu dituzte: abiadura zaintzeko radar bat ipintzea, bidea gurutzatzeko zebrabide bat egitea, autobus geltokiak ipintzea eta gasolindegiraino helduko den bidegorria egitea. Petralanda Eraiketak enpresak egingo ditu lanak. Aste bi

barru hastekoak dira eta obrek lau bat hilabete iraungo dute.

Orain errepidea gurutzatu behar duenak autobusa hartzeko ez du segurtasun neurririk, eta etorkizunean zebrabide bat izango du. Baina zebrabidea egin aurretik,

handik igarotzen diren ibilgailuen gehieneko abiadura 50 kilometro ordukoa dela bermatu behar dute. Gaur egun, batez besteko abiadura 84 kilometro ordukoa da, ikerketa baten arabera. "Aldunditik zenbait aukera aztertu dute

eta neurririk eraginkorrena radar bat ipintzea dela diote", azaldu du Egoitz Garmendia alkateak. Beraz, Trafiko Zuzendaritzak radar bat ipiniko du. Radarra martxan ipini eta abiadura gutxitu dela egiaztatzen denean, orduan pintatuko dute zebrabidea.

Oinezkoen bidea

Otxandio-Durango norabidean, errepidearen ezkerreko aldean, gasolindegiraino helduko den bidegorri bat egingo dute. Horrela, oinezko bideak gasolindegiaz eta hango kafetegiagaz lotuko ditu auzotarrak, bertako bizilagunei zerbitzu bat gehiago eskainita.

Oinezkoen bideak 1,5 metroko zabalera izango du eta auzoguneko lehenengo baserritik gasolindegiraino helduko da. Bidegorriaren heren bi errepidearen ondotik izango dira, baina barruragotik. Azken herena gehiago barneratuko da auzoan.

Egitasmoak 144.000 euroko inbertsioa eskatuko du. Euretariko 70.000 Jaurlaritzako eta Aldundiko diru laguntzen bitartez estaliko dira. Auzotarrek lehen eskutik ezagutzen dute proiektua, joan zen astean udalak herri batzarra egin zuen eta eurekin, azalpenak eman eta ekarpenak jasotzeko.

MAÑARIA • J.D.

Urte hasieran herriko gazteak mendiaz eta zaletasun horri loturiko balioekin hartu-emanetan jartzeko '0-2000' izeneko egitasmoa abiatu zuten Mañarian. Programako egitarauaren barruko ekimen bat domekan arratsaldean egingo dute; Nordic walking ikastaroa. Programako 15 bat gazteei eta euren gurasoei bideratuta dago, ekimena familia giroan egin dezaten.

Egitasmoaren barruan hilero mendi bat igotzen dute, arloan adituak diren mendi gidarien laguntzarekin. Ogoño lurmuturrerako igoeragaz hasi ziren, martxoan, eta apurka mendi garaiagoak ezagutu dituzte: Ipizte —eta han inguruko kobazuloa—, Untzillatx eta Txindoki, besteak beste. Pirinoetako mendi batera joateko asmoa, berriz, atzeratu egin behar izan zuten eguraldi txarragatik eta aurrerago egingo dute. Egutegiko mendi denak igotzen dituztenean, ekimena jaialdi batekin errematatu gura dute.

Martxa nordikoko saioa Mañarian, '0-2000' programako gazteentzat

Gazteei eta euren gurasoei zuzenduriko egitasmoa da, aurten ipini dutena martxan, eta domekan saio bat egingo dute



Martxotik hona Untzillatx eta Txindoki mendiak igo dituzte, besteak beste.

Aitor Elordik Mallabian jokatu du lau eta erdiko hirugarren posturako partidua

MALLABIA • J.D.

Aitor Elordi ezin izan da lau eta erdiko finalerako sailkatu, baina txapelketa ez da oraindino amaitu mallabitarrentzat. Hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeke partidua falta da. Partidu hori Mallabiko pilotalekuan jokatu du, domekan, 17:00etan hasiko den jaialdian, eta Peio Etxeberria izango du kontrario.

Altunaren kontra, ezin

Jokin Altuna Aitor Elordi baino gehiago izan zen finalerdian: 22-7. Amezketarra inspiratuta ibili zen eta asko asmatu zuen. Edozelan ere, Elordik txapelketa bikaina osatu du eta inoiz baino gorago heldu da lehenengo mailako txapelketa batean.

Udalak izurtzarren ekarpenak jaso ditu Tokiko Agenda 21eko batzarrean

IZURTZA • J.D.

Izurtzako Udalak herri batzarra egin zuen eguaztenean herritarrekin, Tokiko Agenda 21aren barruan. Bertan, aurtengo urtean zehar egindako lanak zeharrendatu zituzten eta datorren urtera begira zer asmo duten adierazi zuten. Ondoren, herritarren kezkek eta ekarpenak jaso dituzten. Jasoriko ekarpenak datorren urteko aurrekontuetan islatzen ahaleginduko direla azaldu dute udal ordezkariak.

Batzarra aurrez aurrekoa izan da, aspaldiko partez. Izan ere, aurreko urte bietan ezin izan dute egin COVIDak eragindako murrizketen ondorioz. Horrez ordeztu, etxeetara gutunak bidali eta idatziz jaso dituzte ekarpenak.



Gremioen gida

Zurgintza

leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

Iturgintza

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Iturgintza

Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

Iturgintza

UNAI GARAY
ITURGINTZA BEROGINTZA GASA

Instalatazile baimendua

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

Zurgintza

ATERPE ARROTZAK
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

Dekorazioa

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko altzairuen lakadura eta guztietako zaharberritzeak egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



Profesionalik onenak zure zerbitzura!



"Besoak zabalik hartuko ditugu asteburuan Etxanoko Euskal Herriko Doinuen jaialdira datozen guztiak"

Mitologiak eta magiak Etxano hartuko dute asteburuan. Bertako auzo elkarteak irrintzi-bira, herri bazkaria, sendabelar tailerra, eta trikitilari eta erraldioen kalejira antolatu ditu



Pablo Monasterio, Aitziber Etxebarria, Iraide Lauzirika eta Paskual Uriarte etxanotarrak, atean erraldoiak dituztela.

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Etxano txikia izango da biztanleriari dagokionez, baina argi dago bertako herritarrek ahalegin berezia egiten dutela berezkoa duten herri izaera hori mantendu eta herritarrak batzeko. Urte osoan zehar antolatzen dituzte ekintzak, eta oraingo honetan ere badute zer eskaini. Bertako auzo elkarteak Euskal Herriko Doinuen bosgarren jaialdia egingo du asteburuan. Mitologia eta sinesmenak landuko dituzte. "Erraldoiak sortzeko hainbat tailer egin dugu aurten. Zortzi bat erraldoi ditugu eta eurentariko sei pertsonaia mitologikoak direla kontuan hartuta, jaialdiaren aurtengo edizioa mitologiaren bueltan antolatzea erabaki dugu", adierazi du Pablo Monasterio elkarte kideak.

Esan eta egin. Mitologiaren magiak Etxano hartuko du aste-

buruan. Gaur irrintzi ikastaroa eta irrintzi bira izango dituzte. Bihar ipuin kontalariak, herri bazkaria, dantza tailerra, txalaparta eta antzerkia. Domekan erraldioen

Jaialdiko egitarau osoa 'anboto.org' atarian kontsultatu daiteke

kalejira eta sendabelar tailerra egingo dute. "Larrabe baserrian, gure izeko batek sendabelarrak lantzen zituen", gogoratu du Paskual Uriartek. "Gurasoengana ailegatu zen jakintza hori baina katea gure belaunaldiagaz eten da. Pena da", esan du. Alde horretatik, domekako saioak sendabelarrak ezagutzeko aukera emango du Mentxu Amunategiren gidaritzapean.

Horrez gainera, egitarauak etxanotarrak batzeko eta bertaratzen direnei kultur eskaintza erakargarri bat egiteko balioko du. "Urtetik urtera jaialdi hau geroago eta ezagunagoa dela igarri dugu. Jendeak galdetzen digu ea zerbaitetan gabiltzan. Kultur gogo hori badago", dio Iraide Lauzirikak. "Pozgarria da hori, aurrekontu gutxigaz oihartzuna lortu dugulako. Horrek jarraitzeko gogoia ematen digu. Etxanotarrak beti agertzen dira laguntzeko prest, parte hartzeko gertu. Konpromiso maila egundokoa da hemen", gaineratu du Aitziber Etxebarriak. Ez dute dudarik. Elkarteko kideek Etxanora joatera deitu dituzte kulturzaleak: "Besoak zabalik hartuko ditugu asteburuan Euskal Herriko Doinuen jaialdira datozen guztiak". Jaialdiko egitarau osoa *anboto.org* atarian kontsultatu daiteke.

'Ilunetik argira' dokumentala sortu dute lurretan

Goiuria ikastolaren historia jasotzen duen ikus-entzunezkoa Durangoko Azokan estrenaituko dute

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Kristina Mardaras eta Justo Alberdi Iurretako Goiuria ikastolaren historia ikertzen hasi ziren. Ilusioz eta emozioz beterik, atzera begirako bidaia bat egingo dute, frankismoaren aurrean euskararen alde altxatu ziren une historikora, euren bizitzan mugarri izan zen garaira. Horixe da Markel Onaindia iurretarrak sorturiko *Ilunetik argira* dokumentalak jaso duen istorioa. Durangoko Azokan estreinatuko dute, Irudienean. Ondoren, lurretan ere aurkeztuko dute. Egilearen berbetan, "prozesu aberasgarria eta hunkigarria" izan da.

Ia 60 lagun elkarrizketatu zituzten ikastolaren historia batzeko, eta gutxi gorabehera erdiak agertzen dira udalak, Gerediagak, Goiuria Kooperatibak eta Gurien Baik lagundu duten dokumentalean. Egileak hari propioa eman dio istorioari, film itxura hartu dezan.



Abenduan lurretan aurkeztuko duten dokumentalaren grabazioko irudi bat.

Matrailu gaztetxearen urteurren jaia asteburuan

Bertso bazkaria, kontzertuak, umeentzako tailerrak eta ate irekien jardunaldia izango dituzte zapatuan

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Urtebete joan da Zornotzako gazte mugimenduak Ogena auzoko fabrika bat, garai bateko Perforación SA, okupatu eta bertan Matrailu gaztetxea eratu zuenetik. Zapatu honetan ospatuko dute urteurrena eta egitaraua prestatu dute horretarako.

Egunari umeentzako tailerrek ere ekingo diote, 12:00etan.

Gero, gaztetxea ezagutzeko ate irekiak (12:30), pintxotrikipoteoa (13:30), Zornotzako bertso eskolako kideek giroturiko bazkaria (15:00), Mozkor alaiak taldearen emanaldia (17:30) eta kontzertuak izango dituzte (21:00): Txapelpunk, Brigada suicida, Agur eta Global elektronika. Gauean zehar ogitar-tekoak emango dituzte, eta goizaldean txokolatada egongo da.

Azaroan Berrizen erosteak saria du!

DOAN

Erabili, argitu, berri

6 BIZI BERRIZ 3ME

berrikomerkatari.eus @berrikomerkatari.eus www.berrikomerkatari.eus

AZAROAREN 7tik 27ra lortu Berrizko irudiak dituzten 3 katiluren bilduma

*KANPAINAREN OINARRIAK:

Pertsona bakoitzeko katilu bat oparitu-ko da Berrizko establezimenduetan gutxienez 30€-ko erosketa eginez (beharrezkoa da establezimendu ezberdinetako 3 erosketa-txartel aurkeztea).

07-13 azaroa: 1 eredua

14-20 azaroa: 2 eredua

21-27 azaroa: 3 eredua

Kanpainak 2022ko azaroaren 7tik 27ra bitartean egindako erosketarako bakarrik balioko du edo katiluak amaitu arte.

informazio gehiago:
www.berrikomerkatari.eus

urtxintxa
jostailu denda

Jolasten ikastea errazagoa delako

Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69



Igogailuak Katikena eta Elizondo kaleak batzen ditu.

Igogailuko lanak otsailean amaitzea aurreikusten du Zaldibarko Udalak

Lanek 355.858,98 euroko aurrekontua dute; horietatik ia 230.000 Jaurlaritzak eta Aldundiak ipini dituzte

ZALDIBAR • A.M.

Zaldibarko Udalaren esanetan, Elizondo kaletik Katikena zeharkalera doan hiri-igogailuko lanek "erritmo onean" jarraitzen dute; proiektu honek 10, 70 metroko desnibela gaindituko du eta 35 metroko luzera duen pasabide bat izango du. Juan Mari Uriarte Hirigintza zinegotziaren berbetan,

"ezinbesteko" proiektua da Zaldibarko goialdean bizi diren bizilaguntzentzat, "ikastetxera erraz eta azkar joatea erraztuko du eta".

Lanek 355.858,98 euroko aurrekontua dute eta horietatik 230.000 inguru Jaurlaritzak eta Bizkaiko Aldundiak ipinitakoak dira, irisgarritasuna hobetzeko laguntzetan.

Zaldibarko Castet elkartearen 30. urteurrena ospatuko dute

ZALDIBAR • A.M.

Zaldibarren egun osoko egitaraua prestatu dute herriko Castet elkartearen 30. urteurrena ospatzeko. Domekara bitartean, Euskal Herriko Pegatine-roen elkarteko Iñaki de Nikolasen bildumako pegatinekin erakusketa egongo da; EHko Pegatine-roen elkarteak 2018an sortu zuten eta aldarrikapenerako pegatinen bilduma egiten duten kideek osatzen dute. Azaroaren 18rako pintxopotea antolatu dute, eta osterako txinton txapelketa. Urteurren jaia azaroaren 19an egingo dute, zapatuagaz; eguna ospatzeko, "kamiseta berria" janzteko deia egin dute. 13:00etan ekitaldia egingo dute, eta ostean, bazkaria; azaroaren 16a izango da bazkarirako txartela erosteko azken eguna. 19:00etan, Hatxe taldeak kontzertua emango du; talde zaldibartarrak bertsoak egiten ditu. Eguna borobiltzeko, Xaukena Xaukek elkartearen egoitza girotuko du 22:30ean.

Berrizko Udalak eta Alkarbidek eskuko hiztegia atera dute etorkinentzat

Kanpaina berri honetan bederatzi hizkuntza daude: euskara, gaztelania, ingelesa, frantsesa, portugesa, arabiera, txinera, errumaniera eta wolofa

BERRIZ • A.M.

Berrizko Udalak bat egin du Alkarbidek koordinatzen duen azken kanpainetariko batez. Etorkinentzako eskuko hiztegi bat kaleratu dute oraintsu, Bizkaiko beste hainbat udalez batera; Alkarbide Bizkaiko Euskara Zerbitzuen bilgunea da. Hiztegiak hamar atal ditu: euskara, bizkaiera, gaztelania,

ingelesea, frantsesa, portugesa, arabiera, txinera, errumaniera eta wolofa. Berrizko eskoletan, udal txean eta Olakueta Etxean dago eskuragarri hiztegia.

Bestalde, Berrizko Merkataritza Elkartea (BME) kanpaina berri bat ipini du martxan herriko komertzioetan salerosketak bultzatzeko. Azaroaren 27ra bitartean, BMEra

atxikitako dendetan 30 euro edo gehiagoko erosketak egiten dituzten berriztarrek hiru katilu eredu desberdinen bilduma egin ahalko dute; eredu bakoitzeko ehun katilu banatuko dituzte, eredu bat asteko; katiluek Berrizko argazki esanguratsuak dituzte. Informazio gehiago www.berrizkomerkatari.eus webgunean dago.



Eskuko hiztegia.

anboto
kide

Anbotokideen txokoa

AZAROKO SARIAK



Errigorako
otzara bat.

*Anbotokide guztien artean zozkatuko da.



Zaldibarko koralak antolatutako **Benito Lertxundiren kontzertura** joateko sarrera bikoitza. Azaroaren 26an.

*Eman izena gure webgunean.



San Agustin Kulturagunean **Zaldiaren esaldia** eta **Bazen behin** ikuskizunetarako sarrera bikoitz bana.

*Eman izena gure webgunean.

IRABAZLEAK

Bertsolari txapelketa nagusia:

Arkaitz Zarraga
Andoni Lopez de Armentia
Mertxe Uriarte



Okm:

batzen gaituen
distantzia

Egin zaituz Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



DURANGALDEA • E.H./M.Z.

CCOO, LAB, UGT, ESK, CGT eta CNT sindikatuek greba egun gehiagora deitu dute Bizkaiko metalgintzan "akordio duin bat" lortzeko begira. Lanuzteak azaroaren 28tik abenduaren 2ra egingo dituzte, bost egunean. Sindikatuek adierazi dutenez, "FVEM federazioak aintzat hartu behar du Bizkaiko metalgintzak oihuka eskatzen diona". Beharginak ez daude ados "negoziazioak garatzeko moduagaz", eta adierazi dute ez dutela "erosmen ahalmenari loturiko galerarik eta lan baldintzetan atzerapausorik" onartuko. Hori horrela, sindikatuen iritziz greba egunak "beharrezkoak" dira "FVEMi presio gehiago egiteko", eta horregaz "Bizkaiko metalgintza-ren sektorearentzat itun duin bat lortzeko".

Bizkaiko metalgintzako beharginek beste bost greba egunera deitu dute

FVEM patronalaren eta sindikatuen arteko negoziazioek huts egin dutela iragarri dute



Bizkaiko metalgintzako langileak lurretan egindako mobilizazioan.

Politikan

Mireia Elkororibe
Zenikaonandia
EAJ



Eskua gutxiago luzatu eta akordiorako benetako borondate handiagoa

Egunotan prentsan irakurri ahal izan dugu Durangoko Udaleko gobernu taldeak eta, zehazkiago, Ima Garrastatxu alkateak eta Julian Rios alkateordeak eskua luzatzen diotela oposizioari aurrekontu aurrerakoi eta handinahiak adosteko. Horrela esanda, bikaina dirudi! Tamalgarria da errealitatea prentsako titularretik hainbeste aldentzea.

Egia esan, alkatea eta lehen alkateordea ez dira behin ere eseri legegintzaldian aurrekontuak EAJ-PNVrekin negoziatzera, ezta beste edozer negoziatzera ere, bide batez esanda.

Errealitatea da ere EH Bilduk eta Herriaren Eskubidea-Elkarrerekin Podemos-Independientek etengabe itsuskeriak egin arren, EAJ-PNV udal taldea beti egon dela elkarrizketarako, negoziatorako eta akordiorako prest, oposizio eraikitzaile bategatik, Durangon eta durangarregan pentsatuz.

Horretaz gain, gobernu taldeak legegintzaldi honetan EAJrekin negoziatzeko erakutsi duen interes bakarra *in extremis* izan da, PSEk aurrekontuen aurkako jarrera irmoa iragarri duenean eta EH Bilduk elkarrizketaren eta negoziazioaren irudia saldu behar izan duenean.

Errealitate tristea da, halaber, aurreko guztia gorabehera, EAJ-PNVk aurrekontu-akordioa lortu duenean gobernu-taldearekin, horrek ez duela bete begirunerik, azalpenik eta proposamen alternatiborik gabe.

Errealitate gordina da gobernu-talde honek ez duela inoiz oposizioa kontuan hartu, eta ez diola orain arte inolako errespeturik erakutsi.

Beraz, eskua gutxiago luzatu eta errespetu eta benetako borondate gehiago akordiorako.

Durangaldea asteen

Sorginola gaztetxea bota dute, Fundifes lantegia izandakoaren eraikinetariko bat

DURANGO | Joan zen barikuan hasi ziren Sorginola gaztetxea — Fundifes lantegia izandakoaren eraikinetariko bat— izan zena botatzen. Horrenbestez, Sorginolak agur esango dio 2015etik martxan egondako etapa bati. Gazteak, baina, ez daude geldirik. Sare sozialetan zabaldu dutenez, lanean dabilta Durangoko gazteek "merezi duten gaztetxea" izateko berandu baino lehen.



Durangaldeko EH Bilduk zapatuan Bilbon egitekoa den manifestaziora joatera deitu du

DURANGALDEA | EH Bilduk "Euskal olatua altxatzeko" manifestazioa egingo du zapatuan Bilbon, eta Durangaldeko egiturak mobilizazio horretan parte hartzeko deia egin die eskualdeko herritarrei. "Sistema kapitalista basatiak" eragindako egoeraren aurrean, "soluzioak egon badaudela" aldarrikatuko du EH Bilduk Bilbon. Mobilizazioak 17:30ean irtingo du, Casilla plazatik.



Durangoko Udalaren Durango Sariak udalerriko hainbat eragileren lana aitortu dute

DURANGO | Durangoko Udalak 'Durango Sariak' banatu zituen zapatuan. Hainbat izan ziren, bai epaimahai bidez bai herri bozketa bidez, sarituriko kirolari eta kultur eragile durangarrak. Leopoldo Zugaza hilberriari ere aitortza berezia egin zioten.

Eneko Sagardoy, Miguel Zugaza, Asier Aguirre, Elisabeth Luengo, Jon Sarobe, Juanjo Moreno, KARRIKA Antzerki Taldea eta Tabirako SASKIBALOI Taldea saritu zituzten.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

hitz

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

liburudenda

#salduenak



BAR GLORIA
Nerea Ibarzabal
(Susa)



BERRIZ ZENTAURO
Katixa Agirre
(Elkar)



M, AMA, EME, UME
Erika Lagoma /
Estitxu Fernandez
(Elkar)



MIÑAN
Amets Arzallus &
Ibrahima Balde
(Susa)



IBAIERTZKO IPUINA
Oihane Amantegi
(Elkar)



Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404



EUSKARALDIA

AZAROAREN 18TIK
ABENDUAREN 2RA.

"Konturatu naiz hobeto dela akatsekin hitz egitea,
ez erabiltzea baino".

Aitor Revidiego

HITZETZ EKITEKO GARAIA

EMAN IZENAI
euskaraldia.eus



2022ko AZAROAREN 18tik
ABENDUAREN 2ra

Durangaldeko herriak motorrak berotzen hasi dira Euskaraldirako, txapa banaketa eta askotariko ekitaldiak eginda

Eskualdeko herrietan hainbat informazio puntu ipiniko dute giroa berotzen hasteko eta herritarrek dituzten zalantzak argitzeko



Durangoko lokala zabalik egongo da, bertan txapak banatu eta informazioa emateko.



Urri amaieran inauguratu zuten Euskaraldiaren Durangoko lokala, Ezkurdi ondoan.

DURANGALDEA • J.G.

Euskaraldiaren hasiera geroago eta gertuago dago eta Durangaldeko herrietan hainbat ekimen antolatzen dabilta. Durangon lokala zabaldu zuten urri amaieran eta *Ahobizien* eta *Belarripresten* txapak banatzen dabilta atzotik. Lokala Ezkurdi ondoan dago eta azaroaren 18ra arte egongo da zabalik. Azken hileetan hainbat lan egin dute Euskaraldia ezagutarazteko. Durangoko jaietan *photocall*-a ipini zuten herriko hainbat gunetan.

Bestalde, ahalegin handia egin dute herriko elkarte, enpresa eta eragileei Euskaraldiko ariguneen funtzionamendua azaltzeko. Kirol elkarteetara eta enpresa handietara jo dute batez ere.

Elorriko batzordeak ere hainbat ekimen ipini du martxan informazioa zabaltzeko. Ikastetxeetan informazio mahaiak ipini dituzte eta formakuntza saioa egin dute. Gaur, eta baita asteburuan ere, mahai bat ipiniko dute kalean, informazioa eman eta txapak ba-

natzeko. Abizari AEK Euskaltegian ere jaso daitezke txapak.

Abadiñon, Euskaraldiaren egitarauaren barruan, azaroaren 20rako Ihes Gela antolatu dute Zelaieta eskolako gimnasioan. Ordubeteko sei saio izango dira. Familiei eta 12 urtetik gorakoei zuzenduta egongo da. Azaroaren 20an, Koke Lasaren *Aketegiko Mari, alpinismoa eta mitologia* uztartzen ikus-entzunezkoa proiektatuko dute Txanportan, 19:00etan. Proiektzioaren ondoren, egileagaz solasaldia izango da.

Errekatxo auzo elkartearen, Mendiolan, Eli Pagola eta Unai Iturriaga bertsolariekin afaritarako batuko dira. Abenduaren 1ean, Antton Telleriak *Nekatutak* standup umoretsua taularatuko du Errotan. Doako saioa izango den arren, gonbidapenak jaso beharko dira Errotan edo Mediatekan. Haurtzaindegiko zerbitzua egongo da, izena emanda, katalamixon@gmail.com helbide elektronikoan. Abenduaren 2rako, Euskaraldiaren azken egunerako, beste hainbat ekitaldi prestatu

dute: talo tailerra, postal laburren lehiaketako sari banaketa eta nagusien txapel jaurtiketa. Punterengo bideo laburren lehiaketari dago-kionez, abenduaren 2an banatuko dituzte sariak. Baina film laburren sorkuntza azaroaren 19ko eguerdian hasiko dute. Egileek 24 ordu izango dituzte ematen dizkieten datuekin ikus-entzunezkoa egiteko: gaia, objektua, lekua eta esaldia emango dizkiete. Bestalde, abenduaren 3an, familientzako *Sukar erromeria* izango da probalekuan.

Zornotzan ere badabilta Euskaraldia lantzen. Txapak udaletxean eta Zelaietan jaso daitezke. Azaroaren 11n Ane Lindaneren bakarriketa izango da Zelaietako karpan. Batez ere Gazte taldeari zuzenduriko ekitaldia izango da, eta bertan izena emateko aukera egongo da. Euskaraldiko egunetarako ere egitarau oparoa prestatzen dabilta.


Durungaldeko beste herrietan ere Euskaraldiko batzordeak martxan dira, batez ere izen-emate eta txapa banaketara begira. Iurretan, esate baterako, txapa banaketa egingo dute, gaur Askondo inguruan.

Berrizen ere prestatu dute egitaraua. Azaroaren 18an hasiko dira txapak eta banderatzokak banatzen. Azaroaren 23an, Amets Arzallusek *Miñan* liburua aurkeztuko du. Abenduaren 2an, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen *Urteak bete, abenturak bizi* ikuskizuna taularatuko dute. Sarrerak salgai daude Interneten, eta kultur etxean azaroaren 28tik aurrera.

Zaldibarren, goizetan udaletxean jaso daitezke txapak, eta arratsaldeetan liburutegian. Azaroaren 15ean (16:00-18:00) eta 17an (18:00-20:00) mahai bat ipiniko dute udaletxe aurreko plazan txapak banatzeko.



'Urteak bete, abenturak bizi' ikuskizuna taularatuko dute Berrizen.



Ane Lindane Zornotzan egongo da, azaroaren 11n.

Durangoko lokalaren ordutegia

- Azaroak 12 12:30-14:30
- Azaroak 13 12:30-14:30
- Azaroak 14 18:00-20:00
- Azaroak 15 11:30-13:30 / 18:00-20:00
- Azaroak 16 11:30-13:30 / 18:00-20:00
- Azaroak 17 11:30-13:30 / 18:00-20:00
- Azaroak 18 11:30-13:30 / 18:00-20:00



Antton Telleria abenduaren 1ean izango da Abadiñoiko Errotan.

 amorebieta
etxano
UDALA AYUNTAMIENTO
www.amorebieta-etxano.eus



“Euskara kalera ateratzea garrantzitsua da erabileran aurrerapausoak emateko”

Pastelen errezeta onenak ez ezik, bada Zornotzako Ayarza gozotegiko familiakoek belaunaldiz belaunaldi transmititu duten beste ondare bat: euskara

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

Zornotzako Ayarza gozotegia historia luzea duen gozo-denda da. Gaur egungo arduradunak diren Mikel, Jon eta Gorka Ayarza anaiak eta Iñaki euren osaba negozioko hirugarren belaunaldia dira. Aurretik, euren aita eta osabak egon ziren, eta haien aurretik aitita eta amama, negozioaren sortzaileak eta 1949an denda zabaldu zutenak. Transmisioa funtsezko erreminta izan da familia-negozioan, eta ez errezetengaitik bakarrik. Pastelik gozoenak egiteko sekretuez gainera, euren ama hizkuntza, euskara, da aurrekoengandik jasoriko beste ondare bat. Horregaitik, euren aletxoak ipini eta aurtengo Euskaraldian parte

hartuko dute. Mikel Ayarzak erantzun die galderei.

Aurreko Euskaraldian parte hartu zenuten?

Bai, aurreko aldietan parte hartu izan dugu.

Ahobizi modura, ezta?

Bai, denok euskaldunak gara eta. Nik neuk urteko egun guztietan darabilt euskara, emaztea euskalduna da eta, dimoztarra. Aurreko aldietan Ahobizi izan naiz eta neure aletxoak ipini dut ekimenaren eta euskararen alde Zornotzan. Orain artekoak esperientzia politak izan dira.

Euskaraldiko egunetan igartzen duzu euskara gehiago erabiltzen

dela kalean eta jendeak euskarara sarriago jotzen duela?

Jendea normalean baino gehi-
txoago animatzen dela igartzen

Azken batean, zeintzuk dira, ba, gazteen erreferenteak? Youtuberrak, eta euskaraz gutxi dabilta

dut, bai. Orain bat hemen, gero bestea han... entzuten da. Euskara kalera ateratzea garrantzitsua da, erabileran aurrerapausoak emateko.

Euskaraldia aste biko ariketa izaten da, baina urteko gainerako egunetan zelan ikusten duzu euskararen egoera herrian?

Adin tarteen arabera egoera eta erabilera aldatu egiten direla esango nuke.

Bada, joan gaitezen adin tarteka, orduan. Ume eta gazteen artean zelan ikusten duzu euskararen erabilera?

Gazteen artean gaztelania asko entzuten dut. Ni Larreako igerilekura joaten naiz eta han neska-mutil koskor asko ibiltzen da ni joaten naizen ordutegian, hamar-hamaika urte inguru-koak. Eta, egia esanda, euskara gutxi entzuten dut euren artean.

Monitoreak edo irakasleak gogorarazten dietenean bai, orduan egiten dute, baina euren kontura dabiltzanean... gutxi. Pena da eu-

Sarritan pentsatu izan dut hitanoa erreminta interesgarria dela gazteak euskarara hurreratzeko


ren atzetik ibili beharra euskaraz egiteko etengabe gogorarazten. Natural irten behar litzaieke. Gure etxean ere ikusten dut, e? 12 eta 8 urteko semeak ditut eta euskal-



DURANGOKO UDALA EUSKARALDIAREKIN BAT!



DURANGO
Garena eginez. Vivir y convivir



euskara gara

Abadiño
Elizateko Udala

www.abadiño.org

dunak dira, baina batzuetan gaztelaniara jotzen dute. Guk etxean betiko moduan jarraitzen dugu, euskaraz egiten dugu beti, baina gero lagun artean dabilzanean, beste kontu bat da.

Jakintza inoiz baino hobea dela esaten da, baina erabili ezik...

Alferrik da! Nik ez dakit moda kontua den edo zer den. Gaztelaniaz berba eginda inportanteago edo sentituko balira lez da, ez dakit zelan esan. Euskara toki espezifikotarako hizkuntza bat da eurentzat, gurasoekin dabilzanean eta horrelako markoetan egitekoa. Interneten eta sare sozialen eragina izan daiteke, beharbada. Azken batean, zeintzuk dira, ba, euren erreferentziak? Youtuberrak eta horrelakoak. Eta youtuber euskaldun gutxi dago. Beharbada hori faktore bat da.

Nagusien artean euskara gehiago entzuten da?

Bai, Zornotzan, auzoetan-eta, euskara entzuten da eta nagusien artean hitanoa mantentzen dute, gainera. Ere mu horietan hitanoari

eusten diote oraindino. Baina hitanoa ez da transmititzen belaunaldi berrietara, eta penagarria dela uste dut. Nik sarritan pentsatzen dut hitanoa erreminta interesgarria dela gazteak euskarara hurreratzeko. Hitanoak beste ukitu bat du, gertukoagoa.

“Zornotzarrak ekimenean parte hartzera gonbidatu gura ditut. Ahalegin guztiak garrantzitsuak dira euskararen normalkuntzarako”

Euskaraldia ate joka dagoen honetan, baduzu gomendiorik zornotzarentzat?

Gomendioak eman baino gehiago, zornotzarrak aurtengo Euskaraldian parte hartzera gonbidatu gura ditut. Arlo honetan ahalegin guztiak garrantzitsuak dira euskararen normalkuntzarako.



Ezkerretik hasita: Mikel Ayarza, Jon Ayarza eta Gorka Ayarza.



EUSKARALDIA • ARITZ MALDONADO
Belarriprest eta Ahobizi figurez gainera, Euskaraldiaren hirugarren edizioiko beste protagonistetariko bat Ariguneak dira. Enpresetan euskara erabiltzeko guneak dira eta hirugarren edizio honen erronketariko bat horiek indartzea da, izan ere, erabilera errazten duten guneak identifikatzeak eta eskaintzeak garrantzi handia dute. Durangon dagoen Bruss enpresako *plant manager* den Kepa Arana ere iritzi berekoa da: "Euskara ez da izan behar bakarrik familia edo lagun arteko hizkuntza bat. Hizkuntza osoa izateko, beste esparruetan ere normalizatu behar da bere erabilera, eta hor dago enpresen garrantzia; gure bizitzetako esparru garrantzitsu bat diren neurrian, bertan euskaraz egin ahal izatea normalizatu

Guretzat garrantzitsua da, euskaragazko gure konpromisoa publikoki adierazteko modu bat delako

behar dugu. Eta, hain zuzen ere, horixe da enpresetatik Euskaraldiari egin diezaiokegun ekarpenik onena". Brussek hirugarren partehartzea du Euskaraldian, Arigune modura bigarrena duen arren. "Lehenengo ediziotik parte hartu dugu Euskaraldian, hasierakoan lantegiko paneletan informazioa banatuz eta langileen parte hartzea sustatuz; bigarren edizioan, arigune modura parte hartu genuen. Guretzat garran-

“Hizkuntza osoa izateko, familia edo lagun artea ez diren espazioetan ere normalizatu behar dugu euskara”

Durangoko Bruss enpresa Euskaraldiaren hirugarren edizioan egongo den ariguneetariko bat izango da; entitateei euskara erabiltzeko aukerak bermatzea eta ohitura aldaketak egonkortzen saiatzea eskatuko zaie



tzitsua da, euskaragazko gure konpromisoa publikoki adierazteko modu bat delako", gogoratu du Aranak. Euskaraldiaren antolatzaileek aurreko edizioan entitateek esperientzia eta lorpen baliagarriak batzea lortu zuten, eta horiek zabaltzeko ahalegina da erronka nagusietariko bat. Erakutsi gura dute, herritarren hizkuntza ohituretan eragitea

posible den neurrian, posible dela baita ere entitateen jarduean eragitea, izan hauek elkarte, denda, enpresa edo erakunde publikoak. Besteak beste, 2020an ere parte hartu zuten Osatek eta Mondragon Eskola Politeknikoak ere parte hartuko dute.

Zailtasunak bidean

Enpresen ekarpena garrantzitsua

izan arren, Aranak zailtasunak ere badaudela azpimarratu du, batez ere enpresatik kanpoko hartu-emanetan: "Gure bezeroak Euskal Herritik kanpokoak dira, eta, beraz, ez dugu aukerarik eurekin euskaraz egiteko; hornitzaile batzuk, ostera, bertakoak dira eta hor ekiten diogu. Barne erabiltzen mugatzen da batez ere gure Euskaraldia, baina hor

urratsak ematen ahalegintzen gara". Azken urteetan harturiko neurriak azpimarratu ditu Bruss enpresako arduradunak; besteak beste, lantegiko paisaia linguistikoa euskaratzeko bidea hasi dute, eta harrera protokoloan ere euskara sartu dute gaztelaniagaz eta ingelesagaz batera. Azaroaren 18tik abenduaren 2ra izango da hirugarren Euskaraldia.

ASEGUROAK
LAUROK
z o r n o t z a, s. l.

Mota guztietako aseguruak.
Norbere neurria egokituta,
etorri izaskun eta Jone bisitatzeraz!

Kalea, Zuzila Gallartzagaitia Kalea, 11, 48340
Tel. 946 308 875 • 653 545 543
Amorebieta-Etxano, Bizkaia

Euskaraldiarekin bat!

EUSKARALDIA
HITZEZ EKITEKO GARAIA
Azaroaren 18tik abenduaren 2ra

Aukeratu zure rola!

IZEN EMATEA: euskaraldia.eus

AHOBIZI
BELARRIPREST

UDAL EUSKALTEGIAK GUZTIZTAT. PUBLIKOAK.
UDAL EUSKALTEGIA

Euskaraldiarekin bat!

Solozabal Dekorazioa
studio

@solozabaldekorazioa

solozabaldekorazioa@yahoo.es • 94 682 03 92 • Urarka kalea, 15 - ELORRIO - Bizkaia

EUSKARALDIAREKIN BAT

clínica dental hortzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTOLOGIA · KIRURGIA
ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA IKUSEZINA
ODONTOPEDIATRIA - PADI · HORTZETAKO ESTETIKA
HORTZETAKO ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)

{ Muruetatorre, 2C blokea, beheka - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

RPS: 145-13

DURANGALDEA • J.G.

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra Euskal Herri osoan milaka belarriprest eta ahobizik parte hartuko dute Euskaraldian. Entitateek euskararen erabilera bultzatzeko ariguneetan parte hartu ahal izango dute. Euskaraldiaren helburu nagusia herritarren hizkuntza ohiturak aldatuta euskararen erabilera handitzea da. Helduen aktibazioa du oinarri, eta euskara ulertzea da gutxieneko baldintza ariketa egin ahal izateko. Ariketa edo praktika kolektibo bat da bereziki. Ariketa horretan, maila pertsonalean zein kolektiboan parte hartu ahal izango da. Norbanakoek *euskaraldia.eus* webgunean eman dezakete izena. Norberak *ahobizi* edo *belarriprest* izan gura duen aukeratu eta helbide elektronikoa emanda parte hartu daiteke. Aurreko edizioetan parte hartu dutenek mezua jaso dute euren helbide elektronikoetan aurtengo parte hartzea berrerriteko.

Helburu nagusiak

Hiztunen hizkuntza ohituretan eragitea da Euskaraldiaren helburua, euskarazko hizkuntza praktikak hedatuz. Norberaren hizkuntza portaera eta ohituren inguruan gogoeta eragitea proposatzen da. Horrela, posible izango da inertziak apurtzea. Gizartean eragina duten era guztietako entitateek hizkuntza ohitura aldaketan babes neurriak hartzeko aukera ematen du Euskaraldiak. Lan kolektibo baten bitartez, gizarte aktibazioa lortu daiteke. Gainera, euskaltzaleen artikulazioa bultzatzen da herririk herri. Euskararen

Durangalde osoan Euskaraldiaren leloa zabalduko da azaroaren 18tik abenduaren 2ra: 'Hitzez ekiteko garaia' da

Astebete geratzen da Euskaraldiaren ariketa kolektiboa martxan ipintzeko; txapak jaso eta ariguneak antolatzeneko ordua da



Euskaraldiaren aurreko edizio bateko irudia, Zornotzan.

aldeko eragileak ekimen bateratu baten bueltan antolatzea lorpena da.

Hirugarren edizioa

2018an egin zen lehenengoz Eus-

karaldia, '11 egun euskaraz' leloagaz. Orduan, norbanakoengan ipini zen fokua eta milaka izan ziren hizkuntza ohiturak aldatzeko helburuagaz ahobizi eta belarriprest modura ariketan parte

hartu zutenak. Bigarren ariketa 2020an egin zen eta horretan entitateei ere ariketan parte hartzeko gonbidapena egin zitzairen, euren eremuetan hizkuntza ohiturak aldatzeko urratsak ematen hasi

zitezten eta entitateko kideen parte hartzea sustatu eta babestu zezaten. Ariguneak sortu ziren.

Oraingo honetan, urrats bat gehiago emateko momentua da. Hitzez ekiteko garaia da.

Ayarza
1949

Ayarza gozotegia EUSKARALDIAREKIN BAT

Luis Urrangoetxea, 11
946 73 02 42

INSTITUTUA
FRAY JUAN DE ZUMARRAGA-DURANGO

**Durangoko Institutuan,
Euskara aho eta
bihotzean!**

EUSKARA
IKASTEKO BIDELAGUN ONENA

Durangaldeko AEK
Maila guztiak, Berbalagun,
Mintza taldeak...

**Durango, Zornotza, Elorrión,
Berriz eta Abadiñón.**

CENTRO INTEGRADO DE FORMACIÓN PROFESIONAL
ZORNOTZA
LAN-BIDE HEZKETA
IKASTETXE INTEGRATUA

EUSKARALDIA
HITZ EZ EKITEKO GARAIA
Azaroaren 18tik abenduaren 2ra

946 730 251 | info@fpzornotza.com | www.fpzornotza.com | @fpzornotza

Euskaraldiaren garrantzia eta ahalmena

Gaingan dugu Euskaraldiaren hirugarren edizioa. Lehenengoak sekulako eragina izan zuen. Hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa sozialak berrikuntza handia suposatu zuen ordura arte “euskararen alde” antolatutako egitasmoen aldean, Euskal Herri osoko erakundeek eta eragile sozialek elkarlanean antolatu zutelako, 200.000 partaide baino gehiago izan zituelako eta milaka pertsonen beren gorputzetan sentitu zituztelako euskarara jauzi egitearen edo lehen hitza euskaraz egitearen sententzioak, euskaraz egiteko konplizitate eta sare berriak sortu zirelako eta euskara agenda komunikatiboaren erdigunean kokatu zuelako. Bigarrenkoa, pandemia betean egin behar izan genuen, eta burutu ahal izatea bera sekulako arrakasta izan zen. Gainera, era guztietako entitateetan milaka arigune sortu ziren.

Euskaraldia praktika da, erabilera da. Ez da euskararen aldeko kanpaina. Ez da jarrera baten adierazpena, jokoera praktikoa baten inguruko konpromisoa baizik; norbanako mailan nahiz kolektiboan. Ez da euskarak dituen aje guztien sendagai mirakulutsua, baina, erabileran aurrerapausoak emateko tresna eraginkorra da, ikerketek frogatu bezala.

Bere ahalmen nagusien artean dago eragin masiboarena. Euskaraldiaren bidez, milaka eta milaka euskaldun (hartzaile nahiz hiztun) euskara erabiltzeko prest agertu dira publikoki, aurretik erabiltzen ez zuten pertsonekin eta egoeratan. Euskaraldiari esker, horretarako bultzada eta motibazioa sentitu dute, eta urrats hori emateko

Milaka eta milaka euskaldun (hartzaile nahiz hiztun) euskara erabiltzeko prest agertu dira publikoki

baldintza egokiak sumatu dituzte inguruan. Horregatik da horren garrantzitsua parte hartzea masiboa izatea, ahalik eta txapa gehien ikustea leku guztietan, eta kaleak berriz hartzea banderolekin, muralekin, etab. Gutxien uste dugun pertsona, giro horretan, euskara erabiltzera animatu daitekeelako.


Bestalde, era guztietako entitateetan ariguneak sortzea, hizkuntza biziberritze prozesurako oinarriak jartzea da. Batetik, entitate horietan euskararen erabilera erosoarako aukerak non dauden identifikatzen dugulako, eta bestetik, aurrera begira, normalizazio-prozesua abiatzeko

edo indartzeko urratsa ematen delako.

Garrantzi handiko beste aspektu bat da, Euskal Herri osoan, berau prestatzeko ehunka batzorde sortzea. Euskararen inguruko elkarterik edo bestelako antolakuntzarik ez duten herrietan, ahalik eta gehienak egonkortzea eta iraunaraztea dugu helburu, Euskaraldiaren ondoren ere, erabilera sustatzeko dinamikarekin jarrai dezaten.

Euskaraldia, azken batean, heldulekua da, palanka, abiapuntua. Inertziak puskatzeko heldulekua da, erabileran urrats bat aurrera eman nahi duten pertsona edo entitate guztientzat. Eta aitzakia egokia, euskarari buruz hausnartzeko eta erabakiak hartzeko. Palanka da, ariketa praktikoa delako eta konpromisoak eta erronkak eskatzen dituelako. Ez da manifestu bat sinatzea eta kito. Hausnarketa kolektibo izugarria ere bada Euskaraldia, non pertsonen eta erakundeen kontraesanak ere agerian gertatzen diren: jarreraren eta praktikaren arteko kontraesanak, nahiaren eta portaeraren arteko distantziak. Eta abiapuntua izan nahi du, egun horietako lorpenak eta dinamikak iraunaraztea baita ariketa honen helbururik behinena.

Badakigu, izango ditugun lorpenetatik batzuk mantendu





Kike Amonarriz.

egingo direla eta beste batzuk inertziak jango dituela, baina aurreko Euskaraldiek erakutsi diguten bezala, bukatu eta hila-beteetara, egoera ariketa egin aurretik baino hobea da. Ariketa bakoitzean, partaideek helburu berriak lortzen dituzte eta partaide berri asko integratzen dira lehen aldiz. Horregatik, jarraitu beharko dugu Euskaraldiarekin “kolpeak” bi urtez behin ematen, eta tartean, euskararen era-

bilera sustatuko duten bestelako egitasmoak bultzatzen Euskal Herri osoan.

Honengatik guztiarengatik, eman izena Euskaraldian. Hitzek ekiteko garaia da!

Kike Amonarriz Gorria
Euskaltzaleen Topaguneko presidentea



JUAN OROBIOGOITIA BHI

OROBIOGOITIA BHI, EUSKARALDIAREKIN BAT.

Olaburu 3 - IURRETA
Tel.: 94 428 80 00
www.oroibioitiabhi.hezkuntza.net

KALITATEA HEZKUNTZAN

Eskola Jasangarria Ziurtagiria

Nik belarria prest eta zuk ahoa bizi, euskaraz dakizula herriari adierazi.

MAIZTEGI herri eskola IURRETA

“Euskararen erabilera bultzatzea ezinbestekoa da; gure hizkuntza da, bizia ematen diguna”

Elorrioko Parra tabernak bat egin du Euskaraldiagaz. Barraren alde horretatik euskararen erabilera bultzatu gura dute



ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Euskaraldiaren aurtengo edizioa 2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra egingo da eta Elorrioko Parra tabernako kideak ilusioz, gogoz eta emozioz daude. ANBOTOK Txaber Igartza Pildain elorriarragaz berba egin du.

Badator Euskaraldia. Aurten parte hartuko duzue bertan?

Hirugarren urtez parte hartuko dugu Euskaraldian, eta Parra taberna Elorrioko Ariguneetarikoa bat izango da, bigarren urtez.

Zuentzat garrantzitsua da Euskal Herriko ariketa honetan parte hartzea?

Oso garrantzitsua da. Parra tabernatik beti bultzatu izan dugu euskara, edo bultzatzen ahalegindu gara behintzat, barne mailan eta baita kanpora begira ere. Gure hartu-emanetan zein bezeroekin ditugun hartu-emanetan beti ahalegintzen gara euskaraz berba egiten. Baita publikitate egiterakoan ere, kartelak egiterakoan... Euskara da gure lehenta-

suna, eta, beraz, gutun bat edo ez bada, euskara hutsez egiten dugu dena. Esaterako, kartelak euskara hutsez egiten ditugu.

Elorrio herri euskalduna da. Erabilerari dagokionez, zelako bilakaera igarri duzu?

34 urte daramatzat tabernagaz, eta gatxa da dena gogoratzea, baina esango nuke euskararen erabilera handitzen joan dela apurka-apurka. Euskararen egoera hobetu egin dela esango nuke, eta orain gehiago erabiltzen dela. Hala ere, nahiz eta euskaraz jende askok jakin, eta nahiz eta gaur egun euskaraz gazte guztiek edo ia guztiek jakin, erabiltzerako orduan askok erdarara jotzeko ohitura dute. Gugaz, esaterako, denak edo gehienak euskaraz aritzen dira, baina gero euren artean, taldetxoetan, gaztelaniaz ibiltzen dira. Eta jakin, denek dakite euskaraz.

Euskaraldiak irauten duen bitartean, igartzen duzue erabilera handitu egiten dela?

Bai, eta hori garrantzitsua da,

Euskaraldia garrantzitsua den moduan. Horregaitik parte hartuko dugu Euskaraldian, euskara bultzatzeko eta zabaltzeko. Baina, nire ustez, Euskaraldia ez litzateke data horietara bakarrik mugatu behar, urte osoko kanpaina bat izan beharko litzateke, egunerokotasunean presente izan behar dugun zeozer. Kanpainak, sarritan, horretan geratzen dira, kanpaina huts, eta hori apurtu behar dugula uste dut. Guk, esaterako, jaietarako 'izan kaña, izan ardoa, eskatu euskaraz zure tragoa' leloa atera genuen. Baina ez genuen lelo hori jaietarako izatea bakarrik; beraz, orain horri jarraipena ematen gabilta.

Horrelako kanpainekin ostalari-tzatik euskararen alde asko egin daitekeela erakusten duzue.

Bakoitzak, bere txikitasunetik, asko egin dezake eta gu horretan gabilta. Euskararen erabilera bultzatzea ezinbestekoa da; gure hizkuntza da, guri bizia ematen diguna. Parran euskarari eta euskararen erabilerari garrantzi handia ematen diegu, gure hizkuntza delako. Elorriarrak Euskaraldian parte hartzera gonbidatuko nituzke, eta horren ostean Euskaraldiak sortzen duen olatu horretan jarraitzera eta euskaraz aritzera.

URRITXE INSTITUTUA



ETORKIZUNA SORTZEN

Telf. 94 428 01 54 urritxe@urritxe.eus www.urritxe.hezkuntza.net Urritxe auzunea, z/g AMOREBIETA-ETXANO

EUSKARALDIA

2022EKIN



HEZKUNTZA SAIA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



KALITATEA
HEZKUNTZAN

#PERTSONA #HELBURU

Euskaraldiko gune ibiltaria Durangoko Ezkurdi plazan egongo da, azaroaren 13an, informazioa zabaltzeko

Azaroaren 17an txapa ipintze kolektiboa egingo dute Durangoko Ezkurdin, ekimenari hasiera emateko



Euskaraldiaren gune ibiltaria.

DURANGO • J.G.

Euskaraldiaren hasiera gertu dago eta azaroaren 13an informazio banatzeko gune ibiltaria ipiniko dute Durangoko Ezkurdi plazan. Herririk herri dabilen espazio honen helburua Euskaraldiaren sozializatorako eta pedagogia lanerako bitarteko bat sortzea da. Gune ibiltariak aukera emango du rolen berri emateko, izen-emateak

Gune ibiltariak aukera emango du ahobizi eta belarriprest rolen berri emateko

bultzatzeko eta kalean presentzia izateko. Durangoko Euskaraldiko batzordeko kideak izango dira gune ibiltaria dinamizatuko dutenak. Bestalde, Euskal Herriko hiriburuetan eta hainbat herritan egingo duten legez, azaroaren 17an Durangon ere testu bateratu bat irakurri eta txapa ipintze kolektibo bat egingo dute, Ezkurdin.

EUSKARALDIA -REKIN BAT

94 681 00 50
sanjose@durangojesuuitak.org
www.informazaitetz.eus

ARIGUNE UNEORO

IKASTOLA . KAFETEGIA . OSTATUA . ATERPETXEA . GIMNASIOA

SAN ANTONIO IKASTETXEA
Irakasleon Kooperatiba

Euskaraldiarekin bat !!

www.sanantonio.eus

maristak
Durango Ikastetxea

AHOBI

Han, hemen eta mkd-n euskaraz!

ANDRAMARI ZORNOTZAKO IKASTOLA

Larrea z/g - Amorebieta-Etxano - Tel.: 946 732 950
zornotza@ikastola.eus - www.andramarizornotzakoikastola.eus

Lourdesko Ama, euskararen pentagrama

BIZI TZEKO HEZI


KURUTZIAGA
IKASTOLA

EUSKARALDIAREKIN
BAT!

ESKAINTZA:
0 urtetik 18 urtera bitarteko
hezkuntza eskaintza

HELBURUA:
Ikasle eleanitz, kritiko eta
euskaldunak

JANTOKIA:
Bertokoa, sasoiak eta
produktu ekologikoak



www.kurutziagaikastola.eus





BERTSOZALE ELKARTEA

Bertsolari Txapelketa Nagusia

BERTSOAK DURANGO :: Azaroak 12

Bertsolari txapelketako finalaurrekoa, Durangon

Bertsolari Txapelketako finalaurrekoen lehenengo itzuliko laugarren saioa jokatuko da, zapatuan, Durangon. Sei bertsolari igoko dira Landako Guneko oholtza gainera, eta horien artean egongo da Aitor Bizkarra abadiñarra. Beragaz batera Saioa Alkaiza, Beñat Gaztelumendi, Eñaut Martikorena, Aitor Mendiluze eta Julio Soto arituko dira kantuan. Ane Ezenarro izango dute gai jartzailea.

Durangoko kanporaketa saioa 17:00etan hasiko da.

Zapatuko saioak erabakita utziko du zein hamazortzi bertsolarik parte hartuko duten finalaurrekoen bigarren itzulian. Durangoko saioko irabazleak Bilbon kantatuko du, finalaurrekoen azken saioan, abenduaren 3an. Orain arteko hiru sailkatuak Sustrai Colina, Oihana Iguaran eta Alaia Martin dira.

Azaroaren 11n

BERRIZ ikuskizuna

‘Luze edo motz’ (Lanku Kultur Zerbitzuak), 20:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO merkatua

Mendiko materialaren merkatu txikia, 17:00etatik 21:00etara, Alpino mendi taldearen egoitzan, Goienkalean.

ELORRIO musika

XXXIII. Jazz Blues Jaialdia. Move Quartet, 20:00etan, Ateneoan.

IURRETA musika

Les Fous, 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

ZORNOTZA antzerkia

‘Magallanes y Elcano’ (Eme2-Ajidnha), 20:00etan, Zornotza Aretoan.

Azaroaren 12an

ABADIÑO musika

Karol Mossakowski, 19:00etan, San Trokaz elizan. Bizkaiko Hotsak. Diego de Amezua VII. Organo Jaialdia.

BERRIZ antzerkia

‘Conquistadores’ (Proyecto Cultura), 19:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO antzerkia

Euskadiko Orkestra Circus, 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

DURANGO dantza

Dantzaroa, 19:00etan, Ezkurdin.

DURANGO kontzertua

‘40 urteak ospatuz’ (Doinuzahar kamera abesbatza), 19:00etan, San Frantzisko elizan.

DURANGO merkatua

Mendiko materialaren merkatu txikia, Alpino mendi taldearen egoitzan, Goienkalean (11:00-14:00/17:00-20:00).

ELORRIO musika

XXXIII. Jazz Blues Jaialdia. Matteo Sansonetto, 22:00etan, Ateneoan.

ZORNOTZA musika

‘Zinema atzo eta gaur’ (Zornotzako Musika Banda), 20:00etan, Zornotza Ateneoan.

ZORNOTZA urteurrena

Umeentzako tailerrak, 12:00etan, Matrailu gaztetxean. Gaztetxea ezagutzeko ate irekiak, 12:30ean. Pintxotrikipoteoa, 13:30ean. Bertso bazkaria (Zornotzako Bertso Eskola), 15:00etan. Mozkor Alaiak, 17:30ean. Txapelpunk + Brigada Suicida + Agur + Global Eletronika, 21:00etan.

Azaroaren 13an

DURANGO antzerkia

‘Magallanes y Elcano’ (Ajidnha Associacao), 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

ELORRIO musika

XXXIII. Jazz Blues Jaialdia. The Van, 20:00etan, Gaztetxean.

Azaroaren 14an

ELORRIO ikus-entzunezkoa

‘Aketegiko Mari’ (Egilea: Koke Lasa), 19:00etan, Iturri kultur etxean.

Azaroaren 15ean

ELORRIO berbaldia

‘Neguko Himalaya ganberaren atzean’ (Hizlaria: Pheilipe Izaguirre), 19:00etan, Iturri kultur etxean.

Azaroaren 16an

ABADIÑO izena ematea

‘Punterengo’ 24 orduko film laburren lehiaketan izena emateko azken eguna. Lehiaketa azaroaren 19an hasiko da, 14:00etan.

ELORRIO berbaldia

‘Westfjords.Islandia ezezagunena bizikletaz’ (Hizlaria: Igone Mariezkurrena), 19:00etan, Gaztetxean.

Azaroaren 17an

ELORRIO berbaldia

‘Arrokatik nire bizitza’ (Hizlaria: Martin Urrutia), 19:00etan, Iturri kultur etxean.

ZALDIBAR irakurzaletasuna

Irakur eta jolas txokoa, 17:00etan, udal liburutegian. 3tik 5 urtera arteko umei eta haien gurasoei zuzenduta.

Azaroaren 17ra bitartean

ZORNOTZA erakusketa

‘Bi Itsaso-Dos Mares-Dous Mares’ (Elias Cochón Rei), Zornotza Aretoan.

Azaroaren 18an

ABADIÑO antzerkia

‘Memoria eraikiz-Flores en el asfalto’ (Hortzmuga), 18:30ean, 19:30ean eta 20:30ean, Errota kultur etxean.

BERRIZ antzerkia

‘Batetik bestera’ (Benetan Be), 17:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO antzerkia

‘Zaldiaren esaldia’ (Amantra), 20:00etan, San Agustin kulturgunean. Durango Sor(tzai) leku bekaren laguntza izan du.

ELORRIO musika

XXXIII. Jazz Blues Jaialdia. Juan de Diego ‘Grebalariai’, 20:00etan, Ateneoan.

Zinema

:: Berriz KULTUR ETXEA

• Tadeo Jones

barikua 11 17:00
domeka 13 17:00

:: Durango ZUGAZA ZINEMA

• Black Panther. Wakanda forever

barikua 11: 19:00/21:00
zapatua 12: 17:30/21:00
domeka 13: 13:45/19:00
astelehena 14: 18:30 /20:15
martitzena 15: 19:30
eguztzena 16: 19:00

• As Bestas

barikua 11: 18:00/21:00
zapatua 12: 19:00 /21:30
domeka 13: 20:00
astelehena 14: 18:30
martitzena 15: 19:30
eguztzena 16: 19:00

• No mires a los ojos

barikua 11: 18:00
zapatua 12: 19:00 / 21:30
domeka 13: 20:00
astelehena 14: 18:00
martitzena 15: 19:30
eguztzena 16: 19:00

• Shinchin y el misterio de la academia Tenkasu

zapatua 12: 17:00
domeka 13: 17:00

:: Elorrio ARRIOLA ANTZOKIA

• Argentina 1985

domeka 13: 20:00
astelehena 14: 20:00

• Los buscamundos

domeka 13: 17:00

:: Zornotza ZORNOTZA ARETOA

• Corten!

domeka 13: 20:00
astelehena 14: 20:15

• Lilo, mi amigo el cocodrilo

domeka 13: 17:00

• Ninjababy

martitzena 15: 20:15



Gure aukerak,
zuretzat onenak!

Saldu, erosi, trukatu, oparitu... EUSKARAZ!

“Inpotentzia egoera zabaldu gura dute ultraeskuinaren mesedetan”

Patricia Simón kazetariak berbaldia emango du azaroaren 16an Durangoko Bizenta Mogelen; 18:30ean hasiko da

SAIAKERA • ARITZ MALDONADO

Azaroaren 16an 'Bideak gurutzatu' ekimenari ekingo diote Durangoko Bizenta Mogel Bibliotekan. Patricia Simón gerra berriemate eta idazleak berbaldia emango du lehenengo egunean. 'Miedo. Viaje por un mundo que se resiste a ser gobernado por el odio' liburua aurkeztuko du. Azken hogeitaz batzuetan dozentza batzuetan baina gehiagotako bizipenak batzen ditu liburuetan. Olatu atzerakoien gaineratik, "biziraute, erresistentzia eta elkertasun" istorioak batzen ditu.

Zelako eragina du beldurrak?

Gizateriaren historian beldurrak eragin handia izan du, baina iruditzen zait 2008tik oraindino gehiago. Beldurra estrategia bat da, gehien erabiltzen den arma politikoa. Sinestarazi gura digute dena amaitu dela eta ez dagoela beste aukerarik, baina errealitatea beste bat da herrialde guztietan. Inpotentzia egoera hori zabaldu gura dute boteretsuek, populisten eta ultraeskuinaren mesedetan. Testuinguru horregaz, interesgarria iruditzen zait erradiografia bat egin eta liburuan azaltzea. Sozialdemokraziak eta ultraeskuinak, orokorrean, gure arazoaren ardura-dunak etorkinak direla diote, eta liburuan iruzur hori desmuntatzen dut.

Lau beldur desberdin identifikatzen dituzu liburuan.

Kalitatezko enpleguaren faltak eta gure seme-alabek gureak baino aukera eskasagoak edukitzeak beldurra sortzen digute, adibidez, eta ingurukoak seinalatzen ditugu, benetako arduradunak seinalatu beharrean. Besteei beldurra, pobrezari beldurra, bakardadeari beldurra, eta heriotzari beldurra identifikatzen ditut.

Hogei urte eta hogei bat herrialde batzen dituzu. Oso desberdinak gara?

Nazioarteko kazetaritza eta nazionala egin ditut. Liburuan, Espainian gertatzen direnak eta munduko beste lurraldeetan gertatzen direnak lotzen ditut. Olatu atzerakoia ez da Mendebaldeko kontua bakarrik, mundu arabiarrean ere gertatzen ari da. Voxen, Trumpen, Bolsonaroren eta Erdoganaren ultraeskuinak eta fundamentalismo arabiarrek antz handia dute. Toki askotan egon naiz, baina ez dira kronikak agertzen liburuan; Sierra Leonako Errepublikan bizi den pertsona batek eta Euskadiko batek bizi dituzten egoerak ez dira hain urrunekoak, eta hori erakutsi gura dut liburuan. Gizarte globallean bizi gara eta horrek eragina du. Horrez gainera, komunikabideetatik zorigaitzei buruzko berriak zabaltzen dira une oro.



Patricia Simón Carrasco

Kazetaria eta idazlea

MALAGA | 1983

Sarri esaten da herritarrek ez dutela interesik berriekiko, baina ez da hori; herritarrekiko enpatia gehiago erakutsi behar da, askotan egitasmoak egiten baitituzte horri buelta emateko.

Zer egin daiteke komunikabideetatik?

Komunikabideak informazioa testuinguruan ipintzeaz arduratu behar dira. Gizarte espainiarraz aritzerakoan, adibidez,

azaldu beharko litzateke 2008tik krisi ekonomikoak kateatu dituen gizarte bat dela. Munduan gizarterik seguruenetarikoak izan arren, etxetik irten eta etxea okupatuko dizuten sentsazioa du jendeak. Eta datuek diote hori ez dela horrela, jardun minoritario bat dela. Kazetaritzak gertatzen dena kontatu behar du, datuekin. Eta paralizatu barik ere. Begira Berta Caceresen [2016an

hil zuten ekintzaile hondurastarra] kasua. Denboragaz Nelson Mandelaren mailan ipiniko dute giza eskubideen defendatzaileak. Azken finean, emakume ekintzaileak dira lurraldeetara heldu eta lurrekin, uragaz eta mineralekin geratzen diren multinazionalen jarduna oztopatzen dutenak. Kazetaritzari dagokio hori kontatzea eta "diruaren ibilbidea" nabarmentzea.



Jesus Astigarraga Gerediaga elkartereko Nerea Mujikagaz batera.

Jesus Astigarraga hil da, Gerediaga elkarterean eta Kurutziaga ikastolaren sortzaileetarikoa bat

Lagun handia zuen Leopoldo Zugazaga kultur sustatzaileagaz batera Durangoko Hitz liburu-denda sortu zuen. Durangoko Udaleko aparejadorea izan zen urte askoan

DURANGO • JONE GUENETXEA

Jesus Astigarraga durangarra martitzenean hil zen, 90 urte gaz. Durangoko Udaleko aparejadorea izan zen urte askoan, eta Durangoko kulturgintzan egitasmo garrantzitsuen sorreran parte hartu zuen. Joan zen astean hildako Leopoldo Zugazaga kultur sustatzailea lagun handia zuen eta elkarregaz hainbat egitasmo martxan ipini zuten. Astigarraga

Kultur arloan lehen lerroan egoten zen arren, publikoki diskrezioa maite zuen

gak eta Zugazak Hitz liburu-denda sortu zuten eta Gerediaga elkartereko sortzaileen taldean ere parte hartu zuten. Kurutziaga

ikastolaren sorreran ere bat egin zuten. Izan ere, Astigarraga ikastolaren sorreran proiektuaren bultzatzaileetarikoa bat izan zen. Sasoi batean eskolak bere etxean ere eman zituztela gogoratu dute bere senitartekoek. Astigarraga gertutik ezagutu zutenek diotenez, kultur arloan lan egiterako orduan lehenengo lerroan egoten zen arren, publikoki diskrezioa maite zuen.



Aritz Labrador eta Luciano Martínez.

Sei emanaldi Zornotzako musika bandaren denboraldi berrirako

Zapatuan da lehenengo emanaldia, 'Zinema atzo eta gaur'; 20:00etan izango da

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Zinema atzo eta gaur emanaldiagaz, musika banda zenbat hazi den erakutsi gura dute bertako kideek. Izan ere, Aritz Labrador zuzendariak ardura hartu duenetik taldea "hazten eta bere lekua hartzen" dabilela nabarmendu du Luciano Martínez kultura eta kirol zinegotziak. Bandak 2019ko martxoan egin zuen Labradorregaz lehenengo entsegua, eta orduan hamabi lagun bertaratu ziren. "Gaur egun 35 bat lagun batzen gara zapaturo egiten ditugun entseguetan. Lagun

hauen lan boluntarioa nabarmendu gura nuke", azaldu zuen Labradorrek eguaztenez egindako

Denboraldiko azken emanaldia Karmen eta Santanatzu jaietan eskainiko du Bandak

prentsurrekoan. Zapatukoaz gainera, beste bost emanaldi iragarri ditu Labradorrek. Abenduaren 17an, *Atzoko eta gaurko klasikoak*

emango dute, Eider Etxeandia, Jon Castañeda, Joanes Zeberio eta Ariane Cagno zornotzarrekin batera. Otsailaren 25ean, Ander Marzana pianistagaz bat egingo dute 'Pianoa atzo eta gaur' emanaldian. Udaberriari, 'Banda atzotik gaur arte' eta 'Atzoko aldapeko, gaur' emanaldiak egingo dituzte.

Denboraldiko azken kontzertua Karmen eta Santanatzu jaietan emango dute. "Jaietako emanaldiak herriaren eta bandaren arteko sinbiosia erakusten du", Martinezen berbetan.

Musika Hamabostaldia hasteko, familientzako emanaldia bihar

Euskadiko Orkestraren 'Cirkus' proiektuak malabareak eta magia-jokoak musika klasikoagaz uztartzen ditu

MUSIKA • J.D.

Durangoko Musika Hamabostaldiaren 33. aldia lau kontzertuk osatzen dute. Zapatu honetako lehenengoa umeek eta gurasoek familia giroan ikusteko modukoa da. Euskadiko Orkestraren *Zirkus* proiektuak malabareekin eta magia-jokoekin uztartzen du musika. Emanaldia 18:00etan hasiko da, San Agustin kulturgunean.

Bestalde, Arah taldearen *Bazen behin* ikuskizunak euskal musikaren eta dantza garaikidearen arte-

ko fusioa ekarriko du San Agustineran, azaroaren 20an, 19:00etan.

Azaroaren 26an, 20:00etan, Bilboko Orkestra Sinfonikoak kontzertua emango du Andra Maria Basilikan, Arandoño kultur elkartearen organistagaz batera.

Azkenik, abenduaren 17an, 19:00etan, Durangoko Musika Eskolako hainbat ikaslek osatzen duten Gehi Zazpi taldeak zuzeneko emanaldia emango du Kurutzte Santu museoa.



Hamabostaldiko antolatzaileak ekimenaren aurkezpenean.

Gai librea

Banator, amama

"Noz eskribiduko dozu nik aitzeko moduko zeozer?". Berba honek amaitzen ebazen amamak nire zutabe danak. Aldiro esaldi berbera. Eta nik aldiro testu konplikatuago bat. Ez eban baina amamak amore hain errez emon, eta nik ez naban idea hori burutik hain errez kendu.

Norendako idazten ete dodan galdetu deusat neure buruari sarritan, ze aurrepegi ipinten dotsadan irakurle anonimo hari. Eta zintzoa izetiarren, ezin ukatu amama lako pertsonarik ez nabala sekula irudikatu. Gitxienez, euskara batuan irakurten dakien norbaiti idazten deusadala jakintzat jo dot.

Eta kostau egiten jata bizkaieraz idaztea, ez baita nire ohitura, nire errutina. Azkue fundazioaren eta Labayru hiztegiaren artean nabil, hitz totalka, inoiz



Eider Chaves Gallastegui
Irakaslea

'Noz eskribiduko dozu nik aitzeko moduko zeozer?' berba honek amaitzen ebazen amamak nire zutabe danak

baino baldarrago. Kuriosoa eta arraroa da pentsatzea "euskara jasoan" idaztea familiarragoa dala niretzako berba egiten dodan moduan idaztea baino. Eta honek guztiak loa kentzen ez deustan arren, larritu egiten nau.

Nor imajinatzen dot papelaren bestaldean? Ba, egia esan, ez dot 87 urteko andra bat imajinatzen; betaurrekoak ipini, atzamarra berba bakoitzaren azpitik mobitzen joan, eta ozen irakurten daben persona bat; sutondoan jarrira dagoen "enbra zahar" bat (berak esango eban moduen). Persona "gaztea" imajinatzen dot gehienbat, edo heldua, jubilaziora oraindino ailegatu ez dana.

Euskara batuan irakurtzeko problemarik ez daukana. Gauza filosofikoak interesatzen jakozana. Amamak lanari "biherra" deitzen eutsen, eta ez "gizarteari egin beharreko kontribuzioa, edota norbere identitatea gurutzatzen duen kategoria". Amamak ez eban konparazio askorik egiten, ez metaforarik ez esaldi metafisikorik. Eta nik sarri idazten dot bizitza beste plano batean egongo balitz modura, bizitza materiaren haraindik existituko balitz modura, hor bakarrik. Bizitzak erakutsi deusta, beste behin baina, bizitza hamen dala, hamen pasatzen dala.

Eta imajinazioak indarra daukala ezin uka, horrek ekarten baitauz hainbat hautu, hainbat kreentzia eta imajinario, hainbat testu filosofiko; baina imajinazioak indarra daukala ezin uka, ukatzen dabezela aldi berean beste hainbeste bizitza.

PARAPENTEA • JOSEBA DERTEANO

Larrano parapente taldean dabilzan Gorka Tornosek, Iñigo Gabiria eta Gorka Uribek denboraldi bikaina osatu dute eta Elorrioko parapente taldea inoiz baino biziago dagoela erakutsi dute.

Gorka Tornosek Iparraldeko Liga irabazi du aurten, iaz hatz puntekin ukitu eta bigarren geratu ostean. Beraz, beste garaikur bat gehitu dio palmaresari. Orain urte batzuk Euskal Herriko txapelketa irabazitakoa da. "Txapelketa irabaztea ez zen bila nabilen zerbait. Niri parapentean ibiltzea gustatzen zait eta txapelketetan asko ikasten da", dio Zaldibarren bizi den plaentziarrak.

Iñigo Gabiria irabazi duen Euskal Herriko liga nobedadea da eta aurten egin dute lehenengoz

Gorka Tornosek Iparraldeko Liga irabaztea lortu du aurten

Iñigo Gabiria elorriarrak Euskal Herriko Hike and Fly liga irabazi du aurten. Txapelketa hori aurten antolatu da lehenengoz. Orain arte, egun bateko txapelketa baino ez zegoen. Modalitate berezia da, hegaz ez ezik une batzuetan korrika ere ibiltzen direlako. Beraz, fisikoki sasoi batean egotea eskatzen duen proba da. Bere taldekideekin alderatuta, parapente arinagoa erabiltzen du, korrika dabilenean pisu gutxiago mugitzeko.

Gorka Uribek Bizkaiko parapente txapelketa irabazi du aurten. Orozkon lehiatu zen proba, apirilean. Horrela, bere ibilbideko lehenengo txapela eskuratu zuen

Iñigo Gabiria, Gorka Tornos eta Gorka Uribe, inoiz baino gorago hegaldatu diren parapentelariak

Hiruren artean Iparraldeko Liga, Euskal Herriko Hike and Fly liga eta Bizkaiko Txapelketa irabazi dituzte

berriztarrak. Erregularitasuna izan zen bere armarik onena. "Hiru ekitaldietako bat ere ez nuen irabazi, baina erregularra izan nintzen eta horrek ekarri zidan txapela", gogoratu du.

Kolofoi modura, Larrano parapente taldeak taldekako sailkapena ere irabazi zuen Bizkaiko txapelketan, Uriberen, Tornosen eta Gabiriaren lanari eskerrak. Horrela, Orozkoko probak podium berean batu zituen Larrano parapente taldearen izena lau haizetara zabaldu duten hiru txapeldunak.

Haize korronteen ehiztariak

Parapentelari batek behar dituen dohainen artean, ez da txikiena ingurua behatu eta interpretatzeko gaitasuna. Izan ere, parapenteak ez du motorrik eta igo gura badute gorantz doazen haize korronte termikoak bilatu behar dituzte. Pista on bat hegaztiak eman dezakete; elaiak, esaterako. "Intsektuak termika deitzen den aire korronte batean sartzen badira, gorantz doaz. Eta zer jaten dute hegaztiak? Intsektuak. Beraz, haiek bueltaka dabilzan inguruan termikak egon daitezke. Azken batean, gu txoriekin ibiltzen gara hegan", dio Tornosek. Lainoen forma jakin batzuek ere termiken bidea adierazi dezakete.

Larrano taldean parapentean ibiltzeko aukera eskaintzen dute, bakarka zein lagun birentzako parapente batean. Interesdunek larranoparapente@gmail.com helbidean galdetu dezakete.



Iñigo Gabiria, Gorka Tornos eta Gorka Uribe Bizkaiko txapelketako taldekako sailkapena irabazi zuteneko irudian.

Tabirakok minbiziaren kontrako elkarteari emango dio kanpaina solidarioan baturikoa

SASKIBALOIA • J.D.

Tabirako saskibaloit taldeak ekimen solidario bat hasi zuen urrian Bularreko Minbiziaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira: izerditako bereziak kaleratu zituen egun horri dagokion lazo bereizgarriagaz. Orain, salmentagaz baturiko dirua Durangoko Minbiziaren Aurkako Elkarteari emango diote. Domekan 12:00etan Tabirako Baquek Errioxako ABN Najerilla taldearen kontra Landako kiroldegian jokatu duen partiduko atsedendia baliatuko dute horretarako.



Tabirako Baqueko emakumeen taldea. LUIS ITURRIOZ

Master eta gazte mailako ziklo-krosa domekan, Zornotzan

Euskadiko txapelketako hirugarren probak betaranoen eta harrobiko ziklisten probak batuko ditu Jauregibarrian

ZIKLO-KROSA • J.D.

Amorebieta txirrindulari elkarteak Zornotzako ziklo-krosaren edizio berri bat antolatu du astebururako. Domekan master eta gazte mailako lasterketak egongo dira Jauregibarrian. Kadeteak 10:00etan hasiko dira, gazteak 11:00etan, eta masterrak 12:00etan. Zornotzako Euskadiko txapelketaren barruko hirugarren proba izango da. Une hone-

tan, mutilen junior mailan, Café Dromedario/Flotamet taldeko Oinatz Farelo abadiñarra bigarren tokian kokatuta dago liderrarengandik lau puntura; nesken kadete mailan, talde bereko Laida Hierro durangarra hirugarren dago.

Aurreko egunean, zapatuan, eskola mailako gaztetxoek Txiki Kopako lasterketak izango dituzte. Lasterketa horiek 16:00etan hasiko dira.

Martin Urrutia eskalatzaileak berbaldia emango du Elorrioko Mendi Astean

Erdella Mendizale Taldeak mendizaletasunaren inguruko hainbat hitzaldi eta emanaldi antolatu ditu datorren astean



Martin Urrutiak azaroaren 17an berbaldia emango du Elorrioren.

MENDIA • J.D.

Elorrioko Erdella Mendizale Taldeak hainbat berbaldi eta emanaldigaz osaturiko Mendi Astea egingo du datorren asteko astelehene- tik eguenera. Azkenengo eguneko protagonista Martin Urrutia eskalatzailea izango da. Gaztea izanagaitik, elorriarrak lorpen bat baino gehiago izan du eta eurei buruzko berbaldia emango du azaroaren 17an, 19:00etan, Iturri kultur etxean.

Mendi Astea Koke Lasa alpinistagaz hasiko dute, astelehenean, 19:00etan, Iturrin. Mitologiak eta alpinismoak bat egin dute ormaiz-

tegiarrak sorturiko azken ikus-entzunezkoan, eta horren inguruan arituko da.

Martitzenean, ordu eta toki berean, Felipe Eizaguirre argazkilaria egingo du berba, Alex Txikon alpinistagaz batera bizitako hainbat abenturen gainean.

Eguazteneko hitzaldian, Igone Mariezkurrenak Islandiako paisaiak eta han bizitako abenturak izango ditu berbagai. Bizikletan bisitatu zituen Islandiako Westfjords zonaldeko fiordoetako ur-jauzi, itsaslabar eta putzu termikoak. Ekimena 19:00etan hasiko da, Elorrioko Gaztetxean.

Zapatuan Gau Krosa egingo dute Durangoko Alde Zaharretik

Izen-ematea egunean bertan egin beharko dela da aurtengo nobedade nagusia; ibilbidea iazko bera da

KORRIKA • J.D.

Zapatu honetan Durangoko Gau Krosa egingo dute Durangon, Sekulebedarra klubak antolatuta. Aurtengo nobedade nagusia da ezin daitekeela izen-ematea Internetez aurretik egin; egunean bertan egin beharko da, lasterketa hasi aurretik. Izen-ematerako mahaia 16:00etatik 16:30era bitartean ipiniko dituzte, Santa Anan.

Lasterketak hiru mailatakoak izango dira eta Santa Anatik hasiko dira. 17:30ean 10 urtera arte-

koa hasiko da eta 17:40an 11tik 15 urtera artekoa. Parte hartzea doakoa da bietan. Nagusien lasterketa 18:00etan hasiko da. Maila honetan 10 euro da parte hartzea. Ibilbideak bost kilometro ditu eta Alde Zaharretik zehar izango da.

Durangoko Gau Krosak etapa bi izan ditu. 2015etik 2019rako bost aldiak Durangaldea Running taldeak antolatu zituen. Ondoren, urte bian ez zen egin. Iaztik berriro dago martxan, baina Sekulebedarra taldeak antolatzen du.



2019ko Gau Kroseko argazkia.

Alpino Tabirak mendiko materialaren merkatua egingo du barikuan eta zapatuan



Aurreko aldi bateko merkatuko irudia.

MENDIA • J.D.

Durangoko Alpino Tabira mendiko klubak mendiko materialaren merkatu txikia antolatu du gaurko eta biharko. Urtero lez, jendeak mendiaz zerikusia duten produktuak eramaten ditu mendiko klubera, eta Alpinok salgai ipintzen ditu bigarren eskuko materialaren merkatutxo bat eginda. Horrela, mendiko materialari bigarren erabilpen bat ematen diote.

Merkatua Alpino Tabirak Goienkalean duen egoitzan egingo dute, betiko moduan. Barikuan, arratsaldean egongo da merkatua bisitatzeko aukera, 17:00etatik 21:00etara, eta zapatuan goizean zein arratsaldean: 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Merkatuan eskuragarri egongo den materiala asteen batu dute.

Jokaldia

Txiki Kopa, kirolaren balioak

Orain dela bi aste, lehenengo aldiz joan nintzen nire txirrindularitza eskolakoe- kin Berrizko ziklo-krosaren barruan egindako Txiki kopara. Lehenengotan txundituta geratu nintzen lasterketa bat antolatzeak zelako lana dakarren ikusita, eta konturatu nintzen familien eta boluntarioen laguntza zein inportantea den. Goizeko seietan hasi eta zirkuituan zehar seinalez tapen guztiak ipintzen, hesiak jartzen... nahiz eta euria, kazkabarra edo bero itzela egin. Antolakuntza- ren garaipen bat izan zen eta azpimarratu egin gura dut.

Hori da gure kirol honen gogortasun printzipaletakoa: klimatologia. Berrizko lasterketako momentu batean oso haize bolada gogorak ibili ziren, eta denok sufritu genuen Txiki Kopan gure umee- k



Eneritz
Iturriaga Mazaga
Txirrindularitza

**Berrizko ziklo-krosean
konturatu nintzen zein
inportantea den familien eta
boluntarioen lana antolaketan**

**Niri eta nire alaba
Carlottari gehien gustatu
zitzaiguna hanga
giroa izan zen**

haizearen kontra aritzeko zituzten komeriak ikusita. Baina, aldi berean, horrek egiten gaitu handi. Gainera, horrelako egunetan, bizitarako preparatzen hasten dira gure txikitxoak.

Gure txikiek kirola egin ahal izan zuten, batzuk pozago aritu ziren eta beste batzuei gehiago kostatu zitzaizkien. Kasu

horietan, gurasoak oso garrantzitsuak dira, umeei adierazteko kirolaren bidez hainbat balio lantzen direla, irabazteaz edo galtzeaz haratago. Mesedez, ibili gaitzen kontuz horrelako kasuetan, gauza asko entzun nituen eta.

Baina bai niri eta bai nire alaba Carlottari gehien gustatu zitzaiguna izan zen han bizitako giroa: familian egotea, lagun taldeak osatzea, baita gurasoen artean ere, eta jakina, giro horri loturiko jan-edana eta antzerakoak. Horrelako egunekin, gure txikiak balioetan busten eta hezten ari dira, eurek konturatu ere egin barik. Asteburu honetan Zornotzako ziklo-krosaren txanda izango da. Oraingoan, Furgonetan joango gara 'Manolito'-rekin, eta Maria Luisaren patata tortillak izango ditu gosea baretzeko. Egun-pasa eder bat izango da. Irakurleok, anima zaitzete zuek ere!



ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO



ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es



ZALDIBAR
Erdialdean. Handia. 2 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela terrazarekin. Garaje itxia.
188.000€ C.E.E=E



ASKATASUN ETORBIDEA
3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin, despentsa eta egongela-jangela. Terraza handia. Garajea eta trstelekua. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua.
310.000 € C.E.E=E



ANBOTO
Etxebizitza altua. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Balkoia. Bizitzen sartzeko moduan.
195.000 € C.E.E=E



SANTA SUSANA
Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du. 2 logela, komuna, sukaldea eta eskegitokia. Trastelekua. Garajea aukeran (18.000 €)
199.000€ C.E.E=F



ALOKAIRUAN, EROSTEO AUKERAREKIN
2 logela (lehen 3 logela) komuna, sukaldea, despentsa eta egongela. 2 terraza handiak. Garaje itxia. Eguzkitsua. Ikuspegiak.
116.00 € C.E.E.= E



MARTXOAREN 8KO
ERDI BERRIA 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Balkoia. Garaje itxia.
330.000 € C.C.E.=E

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Herriko Gudarien kalea.

3 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea, despentsa eta 2 komun. Garajea. Trastelekua. Ganbara.

DURANGO: Hegoalde kalea. Adosatua salgai. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.

ABADIÑO

ABADIÑO: Iturritxo kalea. 3 logela, 2 komun, egongela-jangela, sukaldea eta despentsa. Ganbara. 2 garaje eta 2 trasteleku.

BERRIZ

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

IURRETA: Orozketa auzoa. Baserri erdia salgai. Ikuspegi zoragarria. 3.000 m²-ko lursailarekin. Durangotik oso gertu.

BERRIZ: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berrizatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

BERRIZ: Eitua auzoan. Baserri ederra. Berrizatzeko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politik.

ATXONDO: AXPE. Baserri ederra salgai. Berrizatzeko. Kokapen izugarria

ATXONDO: ARRAZOLA. Izugarriko baserria salgai. 40.000 m²-ko lur saila. Berrizatzeko.

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berrizatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatzen.

//BULEGOAK ALOKAIUAN ABADIÑO

30 m²-tik gorako bulegoak. 300 €-tik hasita. Argia eta wifa barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durangon, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIUAN

Alde Zaharrea, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL

INDUSTRIALA ALOKAIUAN

BERRIZ: Eitua industrialdea. 800 m²-ko pabilioia. Aldagelak, komuna eta ofizinekin.

www.inmoduranguesado.com



DURANGO 75 m²
3 logela
ANTSO ESTEGIZ: Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Etxe erdiak kanpora ematen du. (hegoaldea) Argitsua. Zonalde berdeak eta herriko zerbitzu guneetatik gertu (eskola, supermerkatua,...) Egoera onean.
187.000 € C.E.E: Bidean



DURANGO 93 m²
3 logela
ASKATASUN ETORBIDEA: (2.002. urtean eraikia) halla, egongela, sukalde jantzia, (horma-armairuak), despentsa eta 2 komun. 15 m²-ko terraza. 3 m²-ko balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. (ekialde-mendebaldea). Argitsua. leku onean kokatua. (zonalde berdeak eta zerbitzuguneetatik gertu). Ezin hobea. 12,21 m²-ko garajea eta 4,74m²-ko trastelekua.
310.000 € C.E.E:E



DURANGO 90 m²
3 logela
ZABALE: (1.989. urtean eraikia) Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-mendebaldea). Argitsua. Etxebizitza altua. Leku onean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzuguneak. Egoera onean. Garajea.
349.000 € C.E.E: Bidean



DURANGO 93 m²
3 logela
IBAIZABAL: (2.006 urtean eraikia). Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela, eskegitokia eta 2 komun. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-hegoaldea) Argitsua. Leku onean kokatua (zonalde berdeak, eta zerbitzuguneak) Egoera onean. 29,70 m²-ko garaje bikoitza itxia eta 10,67m²-ko ganbara.
380.000 € C.E.E: Bidean



MATIENA 89 m²
3 logela
TRAÑABARREN: : Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia eta terraza. Etxe osoak kanpora ematen du. (hego-mendebaldea): Argitsua. Leku onean kokatua. 12 m²-ko trastelekua. Egoera onean dago baina berrikuntzak behar ditu.
229.000 € C.E.E: Bidean



MUNTSARATS 76,4 m²
2 logela
ARLOZABAL: 76,4 m². Galeria, 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-mendebaldea) Argitsua. Leku onean kokatua. (Zonalde berdeak.) 7,50 m²-ko trastelekua eta 14,29 m²-ko garajea. EZIN HOBEA.
189.000 € C.E.E: Bidean

//DURANGO

ANTSO ESTEGIZ: 2 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta komuna. Trastelekua eta igogailua. **192.000€/ E.E.Z= F**

ANTSO ESTEGIZ: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. Igogailua. Garaje itxia aukeran. **180.000 € / E.E.Z=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **320.000 € / E.E.Z.=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea eskegitokiagaz, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garaje itxia. **LEHEN 280.000€ ORAIN 250.000 € / E.E.Z=E**

JOSEMIEL BARANDIARAN: Logela, egongela, sukaldea balkoiarekin eta komuna. igogailua. garajea eta trastelekua. **300.000€ / E.E.Z=D**

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

JUAN DE OLAZARAN: 3 egongela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000€ / E.E.Z=B**

KOMENTU KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Ganbara. Garaje itxia aukeran. **LEHEN 230.000 € ORAIN 190.000 € / E.E.Z=E**

MONTEBIDEO KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garaje itxia. **275.000€ / E.E.Z=F**

SAN FRANZISKO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje itxia. Igogailua onartuta. **195.000 € / E.E.Z=E**

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitzen 600 m²-ko lurzorua. **LEHEN 640.000 € / ORAIN 550.000 €**

TRENBIDE KALEA: 5 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **LEHEN 175.000€ ORAIN 150.000€ / E.E.Z=F**

//ABADIÑO

MUNTSARATZ AUZO: Baserria. 2.750 m²-ko lur sailarekin. 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Ganbara eta balkoia. **390.000 € / E.E.Z=D**

//BERRIZ

BERRIZBEITIA: 2 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta komuna. Balkoia. **100.000 € / E.E.Z=G**

MURGOITIO AUZO: Berreraikitzenko baserria lurzoruagaz. **290.000 €**

PADURE: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. **125.000 € / E.E.Z=F**

//GARAI

MOMOITIO AUZO: Etxebizitza eraikitzenko lursailak. Aukera ezberdinak.

//IURRETA

DANTZARI KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. **153.000 € / E.E.Z=E**

//IZURTZA

ELIZALDE AUZO: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **620.000 € / E.E.Z=E**

//OTXANDIO

GONBILAZ AUZO: Baserria. 5 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. Ganbara. Lursailagaz. **420.000 € / E.E.Z= BIDEAN.**

//BERRIAK

OTXANDIO

ZELAIETA AUZO: Baserria. 40.355 m²-ko lursaila. 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. **348.000€ / E.E.Z=BIDEAN.**



Botikak

BARIKUA, 11 · 09:00-09:00	09:00-22:00
NAVARRO Artekalea 6 - Durango	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - Zornotza	ASTELEHENA, 14 · 09:00-09:00
09:00-22:00	UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - Durango
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbite poligonoa, 4 P8 - Abadiño	GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - Zornotza
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	09:00-22:00
ZAPATUA, 12 · 09:00-09:00	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbite poligonoa, 4 P8 - Abadiño
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - Iurreta	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - Zornotza	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - Zornotza
09:00-13:30	MARTITZENA, 15 · 09:00-09:00
SARRIA Sasikoa 17, Durango	CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - Durango
GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - Durango	GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - Zornotza
UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - Durango	09:00-22:00
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - Durango	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbite poligonoa, 4 P8 - Abadiño
NAVARRO Artekalea 6 - Durango	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
DE DIEGO Intxaurrondo 22. - Durango	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - Zornotza
BAZAN, DIAZ Uribarri 5 - Durango	EGUAZTENA, 16 09:00-09:00
BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - Durango	NAVARRO Artekalea 6 - Durango
LARRAÑAGA-BALENTZIAGA Berrio-Otxoa 6 - Elorrio	GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - zornotza
FARMAZIA MATIENA Trañabarren 15. - Abadiño	09:00-22:00
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - Zornotza	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbite poligonoa, 4 P8 - Abadiño
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - Zornotza	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - Zornotza
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - Zornotza	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 4 - Zornotza	EGUENA, 17 · 09:00-09:00
09:00-22:00	ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - Durango
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbite poligonoa, 4 P8 - Abadiño	GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - zornotza
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	09:00-22:00
DOMEKA, 13 · 09:00-09:00	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbite poligonoa, 4 P8 - Abadiño
BAZAN, DIAZ Uribarri 5 - Durango	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - zornotza	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - Zornotza

Zorion Agurrak


ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA




GOZATU GOZOTEGIA

Zorionak, **Jontxu (911. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
661 40 14 00
gozatudurango@gmail.com
Gozatu Gozotegia
gozatugozotegia



Zorionak, **Garazi!** 11 urte eder zugaz familian! Jarraitu futbolekin jokatzen eta saxofoia jotzen. Artista zara bietan!



Zorionak, **Magali!** 10 urte bete dituzu iada. Espero dugu zure urteguna ondo pasatzea. Musu potolo asko Abadiñotik.



Horrelako bisitek erredakzioko jarduna alaitzen dute! Eskerrik asko **Txibila!**



Zorionak, **Magali,** zure laugarren urtebetetzean. Pilo bat mosu potolo Zaldibarreko amama-aite, izeko-osaba, eta



Zorionak zure urtegunean aititeren, amamaren eta osabaren partez. Askok maite zaitugu.



Zorionak, **Lorea!** Azaruen 10ien 5 urte. Mosu bat etxeko danon partez!

Eguraldia

ZAPATUA ↓ 22° / 16° ☁

ASTELEHENA ↓ 15° / 9° ☁

EGUAZTENA ↓ 15° / 8° ☁

DOMEKA ↓ 22° / 14° ☀

MARTITZENA ↓ 14° / 9° ☁

EGUENA ↓ 15° / 11° ☁

Eskelak

Jesus Astigarraga Eizagirre
(1932 - 2022)



Gerediaga Elkarteari asko eskaini diozu, beti isilpeko lanean. Eskerrik asko eman diguzun guztiagatik. Beti gogoan

Gerediaga Elkartea.

UN MIEDO INNOMBRABLE

NUESTRAS LOLITAS EN LA LITERATURA

Hizlaria · **Josune Muñoz (Skolastika)**
Eguna · **Azaroak 16**
Ordua · **18:30**

Sarrera GONBIDAPENAREKIN
Hizkuntza · GAZTELANIA
Lekua · IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA

94 681 27 26 | biblioteka@iurreta.eus | 688 863 736

Iurreta
Elezateko Udala

Berdintasuna
Igualdad
Iurreta

"Boiseko ikastolan lanean aritzea oso positiboa izan da pertsonalki eta profesionalki"

Asier Beldarrain irakasle zornotzarrak Idahon eskolak eman zituen joan zen ikasturtean



Asier Beldarrain Ruiz de Azua

Irakaslea

ZORNOTZA | 1994

ZORNOTZA • JONE GUENETXEA

Joan zen ikasturtean Asier Beldarrain irakasle aritu zen Boiseko ikastolan (AEB). Euskal diasporako komunitate-rik zabalenak "besoak zabalik" hartu zuela azpimarratu du zornotzarrak. Baina dena ez zen lana izan. Amerikako Estatu Batuetako eta Mexikoko hainbat leku ezagutzeko ere baliatu zuen bidaia. Abuztuan Euskal Herrira itzuli zen eta ikasturte honetan Elgoibarko ikastolan irakasle dabil, LHn.

Zertan aritu zara Boiseko ikastolan?

Joan zen ikasturtean irakasle lanetan ibili nintzen. 2tik 7 urtera arteko umeei zuzenduriko ikastola

dago Boisen eta urtero irakasle bi joaten dira eskolak ematera Euskal Herritik. Gure metodologia irakasten diegu. Gure helburua euskal kulturaren murgiltzea eta euskal hizkuntzan sakontzea izan zen. Ikastetxe horretan 24-25 ikasle egoten dira.

Zein da ikasle horien profila?

Batzuk euskaldunen oinordekoak izaten dira, baina edozein apuntatu daiteke. Izan ere, izena ematen duten ume asko ez dira euskal diasporako ondorengoak. Ikusten dute AEBetan bigarren hizkuntza bat ikastea gatxa dela, ingelesak indar handia duelako. Boisen eus-

kal gizartea oso presente dagoenez, komunitate horren parte izan gura dute.

Euskal komunitate oso zabala dago eta besoak zabalik hartzen zaituzte beti. Gu hara euskara bultzatzera joatea eskertzen dute

Zelan erabaki zenuen hara joatea?

Hizkuntzagazko eta kulturagazko maitasunak bultzatu ninduen. Era berean, garapen profesional baten

bila joan nintzen. Abentura hori bizi gura izan nuen.

Zelako esperientzia izan da?

Pertsonalki eta profesionalki oso positiboa izan da. Momentu gogorak ere izan dira. Hasieran aldaketa handia da eta zeure burua kokatu behar duzu. Baina, orokorrean, oso positiboa izan da.

Boisen euskal komunitate handia dago.

Euskal komunitate oso zabala dago eta besoak zabalik hartzen zaituzte beti. Gu hara euskara bultzatzera joatea eskertzen dute. Euren seme-alaba edo ilobei euskara irakastera joatea gauza handia da eurentzat.

Izango duzu anekdotaren bat.

Nire herriko eta auzune bereko jendea topatu dut han. Baina, anekdota legez, bitxia irudituz zait euren hiztegi propioa dutela, euskara eta ingelesa nahastuz. Adbidez, sardexkari *forkixe* esaten diote eta aparkatu aditzari *parkeau*.

Ikasle batzuk euskaldunen oinordekoak izaten dira, baina izena ematen duten ume asko ez dira euskal diasporako ondorengoak

AEB ezagutzeko aukera izan duzu. Zein leku bisitatu dituzu?

Kalifornia osoa, Utah, Seattle, Los Angeles, San Frantzisko eta baita Mexiko ere.

Zein izan da gehien gustatu zaizun lekua?

Hiritan San Frantzisko. Baina inguru naturalen artean Arroila Handia azpimarratuko nuke. Ez du zerikusirik Europar topatu dezakezunagaz. Dimentsioak erraldoiak dira.

Mantentzen duzu hartu-eman Idahoko lagunekin?

Bai, jakina. Lagun asko utzi dut han. Askotan joaten ginen Euskal Etxera, eta hartu-eman handia izan nuen hango jendeagaz. Boiseko euskal komunitateko asko urtero etortzen dira Euskal Herrira bisitan. Jubilatuta daudenek, esate baterako, denboraldiak egiten dituzte han eta hemen. Sare sozialetatik ere mantentzen dugu hartu-eman.

Lau-hortza

Martin Loizate Sarrionandia



Amianto hautsezko lainoa jalkitzean

Txaleko islatzaileak langileek eman zioten amaiera hilabete batzuk lehenago bulego ospelatan adostu operazioari, frogatuz beste behin hondeamakina bakarrik egun bitan eraitsi dezakeela ehunka eskuturteetan eraikia. Amianto hautsezko lainoa oraindik jalkitzeke dagoela apunte batzuk nahi nituzke egin.

Lekua izan da Sorginola, gauzak egiteko lekua, indefinitzio horren potentzialitate guztiarekin. Izan delako antzerki konpainia baten entsegu lokal eta Greba Orokorrean apustu etxei jaurtitzeko arrautzak tintaz betetzeko toki aldi berean. Eta aldi berean esatean, esan nahi da egun eta momentu berean.

Eta izan da proiektu artistikoen sorleku eta erakusleho, eta Plateruenaren itxieraren ostean gaztetxea eraistek esan nahi du Durangon ia ez dagoela lekurik profesionalak ez diren artistentzako. Eta leku bat gutxiago arrautzak tintaz betetzeko.

Baina bertan jaio direnek jarraituko dute antzerkia egiten, abesten, errimatzen, poema liburuak argitaratzen. Hauek ezin dira eraitsi.

Orain dela zortzi urte belaualdi bat gaztetxe baten bila hasi zen eta fundizio zaharren okupazioak gazte mugimenduan sorturiko olatuaren aurrak gaurdaino heldu dira. Ordukorik gabe ez legoke gaurkorik.

Bide horretan lehen aldiz ezkerria gobernura iritsi da (eta belaualdi horrek badu zerikusirik) baina inozoa litzateke gobernu eta boterea berdintzea, eta Sorginola gehiago behar da herria eraldatzeko. Eta abesten, errimatzen eta poema liburuak argitaratzen dituen jende gehiago ere bai.



Smurfit Kappa
Central forestal

+55 urte
EUSKADIKO
PINUDIAK
ZAITZEN



Smurfit Kappa
Nervi3n

